


Sebastian Salaberria

Neronek tirako nizkin



80-2390

NERONEK TIRAKO NIZKIN

AUSPOA LIBURUTEGIA

38

SENDOA ARGITALDARIA

B.º Ugaldetxo

Tels. 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Sebastián Salaverría

NERONEK TIRAKO NIZKIN

1964-ngo. «Agora»-ren
«Guipúzcoa» nobela-saria

**Auspoa Liburutegia
1964**



**EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA**

© Sendoa Argitaldaria
Fotokonposatzaile: Cometip, S.L.
Inprimatzaile: Gráficas Lizarra
ISBN: 84-85846-86-9
Depósito Legal: NA. 190-1994

ITZAURREA

Gaur arte Sebastian Salaberria bertso-jartzalle bezela ezagutzen genduan.

1963-garren urtean, Ernani-n, Txirritaren omenaldian, lenengo bertso-paper-txapelketako sariak banatu ziran. Bigarregoa Salaberria-k jaso zuan Ama Euskerari jarritako bertsoekin. Mikrofonora alderatu ta bertso polit bat kantatu zuan, eskerrak emanaz.

Orain illebeta pare bat, berriz, bigarren bertso-paper-txapelketan ere bigarren saria irabazi zuan, Donostia-ko Manuel Matxain eta Ixasondo-ko Jesus Lete-rekin batera.

Ontaz gañera, badu beste zenbait bertso inprentatu, eta asko eta asko paperean jarri-rik (1).

(1) Geroztik, 1984 urtean, bertso-liburu bat argitaratu du *Nere soroko emaitzak* izenarekin (*Auspoa*, 172).

Orain, berriz, *Agora*-ren nobela-saria irabazi du, bere lenengo nobelarekin beste seiri eraginda.

Oso nobela errikoia da, asieratik bukaeraraño euskal errikoitasun garbi-ederrenez jantzia, bai sentimentuz eta bai izkeraz ere.

Gure erriko gizonak olako kontraera asko dute, eta aiek berrituaz denbora-pasa egoten dira askotan lagun-artean eta etxeko sukaldean. Gaia, Salaberria-ri bezela, bizitzak erakutsi die, eta kontatzeko abilitade aparta dute askok, Jaungoikoak doai ori emanda.

Oraindañokoan, paperera gabe aotik aorra ibilli izan dira kontraera oiek. Salaberria-k, ordea, berea paperera paseaz, euskal literaturan bide berri bat azaldu du.

Bejondaiola, beraz, eta Jaunari nai dakiola, Salaberria-k urratutako bidetik beste asko etortzea aren ondoren.

* * *

Oneraiño 1964 urtean, *Neronek tirako nizkin* liburu onen leenengo argitalpenerako idatzi genduan itzaurrean, esaten genituenak.

Gu beintzat ez gera geure liburuak, bein argitaratu ezkerro, eskuetan artu eta osterira irakur zaleak.

Onekin ere berdin. Urteetan eduki degu apalean, iriki ere egin gabe. Orregatik, itzaurre ortan esanak zearo aaztuta genituan. Eta orain, urteen buruan berritzearekin, arritu egin gaitun zerbait arkitu degu. Bukaeran dioguna bera: Salaberriak bere kontaera onekin bide berria irikia zuala alegia, eta orrelako beste liburu asko atzetik etorriko al ziran.

Gertatu ere ala egin baita. Onen ondoren era ontako liburu-zerrrenda luzea agertu da, dantza-soka batean bezela: Zubillaga: *Lar-dasketa*; Uztapide: *Lengo egunak gogoan*; Erauskin: *Aien garaia*; Arrizabalo: *Baso-mutillak*; Ataño: *Txori, Espetxeko negarrak, Zigorpean, Eltzagorra, Odol-kutsua, Etorkizuna, Maitasunaren lanak, Maite itzazute etsaiak, Aztia usnari, Azkeneko saskigillea, Nora goaz?*; Irazusta: *Nork bere bidea*; Alkain: *Gerrateko ibillerak*; Mari Treku: *Mattin, nere gizona*; Patxi Lazkano: *Tiro tartean bertsoan*; Txomin Garmendia: *Bordaberriko gozo-mikatzak eta Beltzak eta zuriak mendian ardia*; Etchebarne: *Erramun*

harginaren oroitzapenak; Etxaburu: Neure lau urteko ibillerak; Azpiroz: Arbol zarraren kimuak eta Gogoz kontrako pausoak; Ibai-ertz: Orrela ziran gauzak; Barandiaran: Zartu gabe ezin bizi, Beñat Karrika: Armen-daritze haur begiez; Pujana: Deabruak ostutako urteak; Lertxundi: Igaroari begira.

Eta baditeke bat edo beste aaztuta utzia izatea.

Arrazoi osoa genduan, beraz, orain ia ogei ta amar urte ori papereratu genduan. Esan bearrik ez dago, noski, orduan asmatu izana gaur guretzat arrokeria ez dala, por aundi bat baizik.

A. Z.

I

Ni mundu ontara sortu nintzan Abenduaren 26-an, 1915-garren urtean, gaubeko amabietan. Oiartzun-go partean dagoan El-bitxuri izena duan baserrian.

Baserri au kaletik oso urruti dago, Oiartzun-go partean jaio nintzala juxtu-juxtu esateko moduan, bañan nola lur artan sortu nintzan, bertara eraman bear bataiatzera.

Nere amandre izeba Antoni zanari amai-ka bider entzun izan diot gauza au: ni ez nintzan izugarria izango, bañan txandan eramaten omen niñuten, lau edo bost lagunen artean. Egualdia oso txarra omen zegoan, eta beldurgarrizko lokatzetan barrena joan omen giñan; bideak noski kristaua utsik ere ibili ezin zan modukoak.

Iritxi omen giñan noizbait eleizara, eta

bikariyo jaunak, ni bataiatzen ari zala, ma-
kiña bat bider esan omen zuan:

—Gixarajoa! Egualdi ederrarekin etorri
zera!

Elbitxuri, Errenteri-tik kanposantuko ka-
miyoan gora Astigarraga-ko benteta-aldera
goazela, erritik iru bat kilometrora eta ka-
miyotik ezkerretara lareun bat metrora da-
go. Etxe kaxkar bat zan, bi bizitzakoa, oso
zarra, mendi-egal mospel batean egiña,
eguzkiak gutxi jotzen zuala. Terreno gutxi,
txarrak, arloteak eta itxas aldetik zituan.

Etxe inguruan ba omen zituan bost edo
sei sagar-arbol, eta gañerako fruta oso gu-
txi; belaze eta sagasti kaxkarrak; txarik edo
basorik ere ez; erreka edo urik ere etzuan
bere terrenuan, eta Paistire izeneko baserri-
ren erreka edo iturritik artzen omen gen-
duan bear zan ura.

Etxe onen jabea emakume xar bat omen
zan. Bera bakarrik bizitzen zan bizitza ba-
tean, eta beste bizitzan berriz gure familia.
Emakume xar arek urte asko nola baitzi-
tuan, Oiartzun-go Mixerikordira eramán
omen zuten; eta gero, Elbitxuri-ko bera bizi
zan alderdia, erori egin zan, eta gu ere or-
duan aldatu giñan Errenteri-ko Sagasti base-

rrira. Gure anai zarragoak esaten didatenez, Elbitxuri-tik Sagasti-ra aldatu giñanean, nik zortziren bat illebeta omen nituan.

Sagasti baserriak bazuan etxetik aparte mendi bat, zakarra ebakitzen gendua. Praisku-larre esaten genion. Ara joatean ikusten genduan Elbitxuri baserria, eta gure anaiak ala esaten zidaten:

–Ara or Elbitxuri, ire jaiotetxea!

Eta nik:

–Or jaio al nintzan ni?

–Bai; ortxen jaio intzan i.

Eta etzait gogoratzen geroztik etxe artarra inguratu naizenik.

II

Errenteri-tik Irun aldera goazela, erritik kilometro bat bezela dago La Fanderia ize-neko pentsu-fabrika; eta emendik kilometro ta erdi bezela, eskubi aldera, Astigarraga-ko bentetara artuta, dago Sagasti baserria.

Etxe aundi xamarra zan, leku zelaiean egiña, eguzkiak eta aize sanoak ederki maitatzen dutela.

Terrenua ere dexente zuan, geienak zelai xamarrak, malda edo aldapatsuak ere bai. Garai artan sagasti ederrak eta aundiak zituan; arta-soro, belaze eta zakardegiak ere onak; lau edo bost bei, iru edo lau txal, idi-para, astoa, txerria eta ollo-mordo bat ere bai. Etxe inguruan bazituan intxaur-arbol, gerezi, udare, melokotoi eta aranak.

Ateondoan txabolatxo bat, eta bertan bi-

zitzen zan txakur txiki bat, Potxo izena zuana, kolorez txuri-beltza. Bere ortz zuriak erakutsi zizkion makiña bat ijito mutur-beltzi eta eskean zebiltzan aitona zar gizarajoi. Eskerrak katean lotuta egoten zala; bestela, komeri ederrak ikusteko zeuden etxe inguru artako ijitoak eta eskale zarrak.

Bañan azkenean erremate txarra eraman zuan gure txakur ate-zai arek. Sagasti base-ritik atera giñanean, bazituan amairu edo amalau urte; eta, kaleko etxean bizi giñala, marmola-fabrikako zakur aundi bat etortzen zan berarekin jostatzera, eta gau batez gure anai Kaximiro zanak pala batekin tirazion kolpe zakur aundiari, eta gure Potxo gixarajoa jo zuan buruaren erdian, eta eba-ki luze bat egin zion. Gure anai zarrenak, Fermiñek, bereala egin zion sendatzeko alegiña, osijenada urez garbi-garbi eginda eta gero tintura-iodoz igurtzi eta zapi batekin lotuta; bañan andik egun gutxira il zan, eta pena ederra eman zigun gure Potxo ga-xoak.

Etxetik irureun metrora bezela zegoan erreka, arropak garbitzeko eta ganaduak edateko; eta erreka onen inguruan Ama Birjiñ iturri bat zegoan, oso ur ederra zuana,

eta emendik artzen genduan etxerako bear zana.

Ama Birjiñ iturri abek ez dira nun-nai izaten, leku-lekutan baizik, eta badute gauza aparteko bat, beste iturriak ez dutena: naiz eta Ama Birjiñ iturri au erreka baten inguruan egon, ez du zer ikusirik erreka onekin; erreka baño goragotik mendi-egaletik ateratzen da ura; beste leku batzuetan, berriz, errekatik bosteun metrora berdin egon leike iturri au. Geienetan leku menditsu baten beko txoko inguruetan izan oi dira. Naiz izan urte euritsua eta naiz legortea, iturri abetatik urte guztian ur berdintsua ateratzen da. Idu-ritzen da neguan udaran baño epelago ote dagoan, bañan au izaten da gañerako urak neguan udaran baño askozaz otzago daudelako.

Gure familian izan gera zortzi anai ta bi arreba. Arreba oietako bat jaio eta bereala il omen zan, ta alaxen Sagasti-n bederatzi senide bizitu giñan gurasoekin: Fermin, Saturnino, Jose, Antonio, Rikardo, Ramoni, ni ta Polikarpo. Gaurko egunean Kaximiro ez beste danak bizi gera.

Gure Saturnino, soldaduskako urteak nola baitzitan, sortean Afrika-rako toka-

tua izan bear zuan; bañan gerra bizia omen zebillen orduan Afrika-n, eta berari auxe gogoratu omen zitzaion:

–Ez naute uste bezin errez arrapatuko ango tiroak!

Eta bere asmoa Errenteri-ko lagun bati bakarrik esan omen zion.

Alaxen, atera omen zan goiz batean etxetik. Irun-en ba omen zuan famili ezagun bat, eta aien etxera joan omen zan bazkal-tzera. An galdetu omen zioten ea zer zebillen, eta erantzun omen zien laixter soldadu joan bear zuala eta bixita bat egitera joan zala.

Bañan bazkaldu zuanean, andik atera eta segituan mendiz jo omen zuan Frantzia-ko muga aldera. Bero ikaragarria omen zan ta pasa omen zituan egarri ederrak. Lendik ba omen zekien nuntsu egoten ziran karabine-roak, eta ba omen zijoan ixil-ixilik.

Nabaitu omen zuan izketa-soñua; iratze aundia omen zegoan eta aren tartetik jarri omen zan begira. Arbola baten azpian, itza-lean, an ari omen ziran bi karabinero kartetan jokuan, eta ixil-ixilik iratze tartean barrera pasa omen zan inguru artan. Gero ibaia pasa ta joan omen zan mugaz aruntz

Frantzia aldera, eta an baserri batean jarri omen zan morroi. Gaur ere Frantzia-n bizi da baserri batean, amairu seme-alaba –amar bizirik– izanda.

Aiuntamentuan enpleatzen zan gizon bat Alberto izena zuana, eta nere anaiai eta soldadu joan bear zuten mutil guztiai onek bialtzen zien etxeetara papera, eta nik ere etxean entzungo nuan noski nola esaten zuten:

–Albertok bialdu zioke alako etxetako mutillari soldadu joateko papera.

Ni mutil koxkorra nintzan, eta gizon ori ezagutzen nuan eta gorroto aundia nion. Oraindik ere oroitzen naiz nola esaten nuan:

–Ez ote da ilko Alberto, ni soldadu joaterako?

Badira berrogei ta geiago urte nik gauza ori esaten nuala, eta oraindik ere bizi dala uste det Alberto. Il danik ez det beintzat entzun. Etzuan asko balio izan –ala ohea ere ta– nere maldizioak. Uste nuan Alberto ilda besteren bat izango etzala soldaduskako paperak bialtzeko; berriz ere orrelako paperak etxeetara bialtzeko izango dira bai gizonak, eziñean dabillenari laguntzeko baño seguruago.

Gure aita arotza zan, eta, famili aundia eta danak gazteak nola baigiñan, baserrian gure amak eta bi edo iru anai zarrenak egiten zuten lana, eta aita irabazira joaten zan.

Errenteri-ko *Papelera*-n egiten zuan lana, eta egun batez andamiotik bera erori zan, eta bean tabloi bat zegoan, eztenga aundi bat muturrez gora zuala, eta uraxen sartu zuan iztarretik ezurra jotzeraño.

Makiña bat mediku eta botika ibili zan gure etxean, bai dirua galanki gastatu ere; bañan danak alperrik izan ziran. Noiznai etortzen ziran beragana mediku bat eta iñoiz bi ere bai, eta abei beren artzekoa ordaintzeko ukullutik atera bear izaten zan txal bat edo bei bat, eta pixkabanaka orrelaxen joan ziran gure ganadu geienak, medikuaren bi-xitak eta botikak ordaintzeko.

Baserria errentan ibiltzen genduan, eta, gure aitak lau bat urte oiean gaxo zeramazkiela, nagusiak baserria saltzea pentsatu zuan. Garai artan etzan orain bezelako legerik, eta etxe-nagusiak nai zuana egiten zuan bere baserriarekin; eta egun batez etorri eta gure gurasoai esan zien:

—Baserri au saltzea pentsatzen det, eta lenbailen atera bearko dezute.

Eta gure amak erantzun zion:

–Bañan, gizona! Ez al dezu ikusten nere senarra nola dagoan? Eta famili onekin, danak saski batean sartzeko modukoak esate baterako, nora joan bear det nik?

–Nai dezun tokira zoaz; bañan nik auzen bakarrik esaten dizut: libratzeko azkar nere baserria.

Alaxen, saldu zion Pello izeneko gizon aundi bati, naparra berez; eta Pello au, baserria erosi zuanean, etorri zan gure gurasoengana eta ala esan zien:

–Begira: baserri au nik erosi det eta emendik atera egin bearko dezute.

Eta gure amak adierazi zizkan familiko goraberak, bañan baserria saldu zuanaren moduko biotza zuan erosi zuanak ere.

–Etxekoandre, obran asi bear det etxe ontan, eta libratu zaidazute azkar.

Eta gure amak erantzun zion:

–Obran asi bear badezu, asi zaitez bazter batetik, eta ni saiatuko naiz beste etxe bat billatzen.

–Ez dago gaizki esana, etxekoandre; baña etxea puxka bat altxatu egin nai det eta tellatua kendu nai diot.

–Tira, ba; asi zaitetz, ba, ixkin ortatik.

–Ez; zure senarra dagoan gela orren partetik asi bear degu tella kentzen.

Eta alaxen gelditu zan gure ama, bere begiak bi iturri ziruditela, negar galanki egiñez.

III

Errenteri-ko erritik zortzireun bat metro-ra, *Papelera Española*-ren atze aldetik, trenbidearen ondoan, zegoan etxe bat bi bizitzakoa, toki mospel xamarrean, mendi baten beko sakonean, eguzkiak gutxi jotzen zuala.

Bizitza oietan bizi ziran bi famili, eta etxe onen ondoan amar bat metrora zegoan beste etxe zar aundi bat, aspaldian utsik zegoana, eta gure ama zanak etxe artara joateko modua egin zuan, gaxo zeukan bere senarra eta familiarekin.

Etxe abek, naiz-eta kaletik aparte xamar egon, etzuten terrenorik. Etxe legorrak deritzaiotenak ziran.

Etxeko mueble zar, erreminta eta gañerako gauzak eramaten, auzoko baserritarrak,

gure aitaren lagunak, ibili ziran idiak eta gurdiakin: Palaziyo baserriko Jose Inazio eta Gaztaño baserriko Periko. Joan-etorri pranko egin zuten, gauzik gutxiena dan baserrian ere tresna asko izaten baita: gurdi ta karro zarrak, goldea, area, segak, aitzurrak, kupelak, barridak eta nik al dakit zenbat tresna zar. Bearbada balio aundikoak ez, bañan baserrian serbitzu ederra egiten dutenak beintzat.

Bei bat ere eraman genduan, Arrio izena zuana, etxerako lain esne izatearren.

Gure aita zana bost urte luzean oiean gaxo eta geienean triste xamar egon bazan ere, ez genduan, *Papelera*-ren ondoko etxe zar artara aldatu giñanean, alaiago ikusten.

Ni artean mutil koxkorra nintzan, bañan igartzen nion gure aita tristetzen ari zala, eta etziola onik egin baseritik kalera aldatzeak.

Neroni ere triste arkitzen nintzan kale aldean, baserriko bizi-modua gogoratuta. Oraindik ere oroitzen naiz gure ama zanak nola bialtzen giñun batzuek baratzara eta besteak ganbarara esanez:

–Zuek ekarri azak eta porruak; perejil-puxka bat ere bai; eta zuk ekarri ganbaratik

babarruna, tipulak eta baratxuriak; sagar batzuek ere ekarri erretzeko.

Aza-babarrunakin eltzekai ederra egosten zuan; urdai-pusketa bat ere sartzen zion, eta arek ere asko gozaten zuan. Etzait aztuko, bizi naizen arte, amaika t'erdiak inguru ortan nola ematen zigun ogi-puska bana eltzean bustita. Ura bai zala gauza gozoa!

Sagardo ederra ere egoten zan kupelan, eta egarritzean txarroa artu eta gustora joaten giñan eske.

Kalean, berriz, baratzara eta ganbarara joaterik ez; gutxiago, berriz, txarroarekin kupelara egarritzean. Dena erosi egin bear. Ori da gauza tristea! Alperrik da; osasuna izan ezkeru, gu bezelakoarentzat baserria da onena bizitzeko.

Gure aitak igarri zion bere buruari baserri-jabeak eriotz-bidean jarri zuala baseritik bialtzearekin, eta denbora gutxi barru ilko zala; eta iñoiz otsegin eta eraman-azten giñun danok bere gelara, eta an jarduten zan guri konsejuak ematen, esanaz bera laster ilko zala noski, eta otoitz egiteko bere alde, zerura joan zedin; amarekin gelditzen giñala eta bere esanak zintzo egiteko. Seme zarrinari esaten zion, gu oraindik gazteak giñala

eta guri bidea erakusteko, nundik eta nola ibili bear genduan.

Eta orrelaxen etorri zitzaion eriotza. Azkeneko orduan zentzua galdu zitzaion, eta arnas larri batzuen ondoren il zan.

Gero, aita ikusi genduanean kajan sartu ta lau gizonek zeramatera, ama berari begira negarrez, eta gu ere bai. Amak esaten zigun:

–Umeak, etzazute negarrik egin, aita zerruan dago ta.

Bañan guk ala ere negar egiten genduan.

Gero ama oso triste gelditu zan orrenbeste umerekin bakarrik. Gure osaba bat, amaren anaia, alargunduta zegoan bere emaztea ilda; eta, nola etzuan aurrik eta familiarik, ura ere bakardadean triste arkitzen zan. Eta gure etxera etortzea pentsatu zuan, eta ala etorri zan.

Antonio zeritzaion eta urte askoan Errenteri-ko *Lanera* fabrikan aritu zan lanean.

Oso gizon jatorra zan, eta guretzako ere ogi-puska bezin ona. Guk asko maite genduan; berak ere bai gu. Makiña bat aldiz lo egiña nago berarekin.

Bañan guregana etorri eta andikan laster

gaxotu egin zan. Uste det urak zituala gorputzean, eta artatik illa izan bear zuan, oso denbora gutxi oiean pasata. Gure aita il eta andik urte bete ingurura il zan, berrogei ta amaseiren bat urte zituala. Zeruan gerta dedilla.

Gure ama geroago eta tristeago jarri zan, lenago senarra eta gero bere anaia il zitzazkanean, eta bera ere gaxotu egin zan. Aren gaxotasunik aundienak naigabea ta tristura izan ziran.

Garai artan ni Gabiria baserrira morroi joana nintzan, eta tarteka joaten nintzan bixitatzera.

Gure anai zarragoak esaten dutenez, gaxotu zanean bereala ekarri omen zuten medikua. Onek esan omen zuan etzuala ain gaizki arkitzen, eta berriz ere etorriko zala andik egun batzuetara.

Etorri omen zan, berriz ere begiratu omen zion ondo, eta ez omen zion gauza aundirik arkitzen. Ala, bere errezeta egin eta joan omen zan, «urrena arte» esanaz.

Bañan geroago eta motelago gure ama ori; eta, gutxiena pentsatzen nuan garaiean, senideetakoren bat Gabiria-ra ama il zala

neri abixatzera joan zan. An etorri giñan biok korrika, bide guztian negarrez.

Etxera iritxi giñanean, sartu nintzan amaren gelan eta an zegoan oiean ilda. Ura ala ikusi nuanean eta gañerako senide guztiak ere bere inguruan negarrez, neronek ere gero ta geiago negar egiten nuan.

An ari ziran esaten gure anai zarragoak eta auzoko beste emakume batzuek jantzi egin bear zala bereala Ama Birjiñaren gisan; kaja ere ekarri bear zala segituan.

Egin ziran gauza abek danak, eta oso ederki jantzita jarri zuten gure ama, kajan sartuta, oiaren gañean; bi kandela piztu zizkaten bere ondoan, eta ala egon zan urrengo goiza arte.

Gure anai zarragoak eta auzoko beste batzuk egon ziran gaubean berari laguntzen, beren otoitzak egiñez.

Urrengo goizean etorri ziran Lezo-tik apaiz bat eta mutil koxkor bat bere gurutzearekin. Apaizak egin zuan bere errezua gure amaren aurrean, artu zuten lau gizonek bizkarrean eta an eraman zuten gure ama gaxoa Lezo-ko kanposantura.

Gure senide batzuk joan ziran bere ondoren, kanposanturaño lagundu eta eleizki-

zunetara, eta gu etxean gelditu giñan, aiek etorri arte.

Auzoko emakume aietako bat gelditu zan gurekin. Arek ere ala esaten zigun:

–Etzazute negarrik egin, umeak, ama zeruan dago ta.

Bañan ala ere guk negar egiten genduan. Eta Gabiria-n bei-kontu nenbillela ere, ma-kiña bat aldiz egon nintzan negarrez, gure aita eta ama gogoratuta, pentsaturik ez ni-tuala geiago ikusiko.

Gu bizi giñan etxea nola baitzegoan Le-zo-ko partean, aita, ama eta osaba Antonio zana Lezo-ko kanposantuan lur artuak dira. Gure etxetik bide luzea zegoan kanposantu-raño, bañan ala ere ildakoak bizkarrez era-maten zituzten. Aspertu ederra artzen zuten eramantzalleak. Gero amaiketakoa izaten zuten Lezo-ko *Gure Borda* ostatuan: ogia, gazta eta ardoa.

Bi urte beteren buruan iru gorputz atera zituzten gure etxe artatik. Tristura ederra utzi zuten.

Anai-arrebak an gelditu giñan bakar-ba-karrik, iñoiz esaten dan bezela, ez zerurako eta ez lurrerako.

Garai artan gure arrebak amar bat urte

zituan, eta, nola ez genduan beste emakumerik etxean, guk zerbait ere pentsatu bear, eta alkarren artean erabaki genduan anai batzuk ostatur jarri eta lanean asiko zirala fabrika edo beste lantegiren batean, eta beste anai batzuk, berriz, morroi joango giñala baserri batzuetara. Eta orixen egin genduan.

Sagasti-tik ekarritako traste aiek danak saldu egin giñun. Obeto esateko, erregalatu; balio zuten diruaren erdirik eta laurdenik ere ez baitzan artu. Guri ere gertatu zitzaigun Txirritak bere bertso batean esaten duana, nagusi batek bere baserritik bialdu zuan maizter baten gertaera:

Aziendaz ta lan-erremintaz
bagendaukagun indarra,
orain abekin ere ez degu
oso alderdi ederra;
zazpi baliyo luteken gauzak
bostian eman biarra,
au pentsatzian etortzen zaigu
begiyetara negarra.

Kaleko etxe artan urte pareren bat pasatu giñun, eta, gure gurasoak ilda andik atera giñanean, berriz ere utsik gelditu zan. Etxe abek eta bere inguruko terrenuak *Papelera Oarso*-ren nagusiak erosi zituan, eta etxeak

bota, bete-lanak egin eta gaur terreno abetan
Papelera Oarso dago.

Familitik sakabanatu giñanean, noiz edo noiz alkarrengana biltzen giñan senideak, igandeetan eta aste erdiko jaietan goizean mezetara joatean edo arratsaldean, eta an jarduten giñan danok izketan, txoriak baño alaiago, batak besteari geuren pasadizoak esaten. Lenengo alkarri esaten geniona auxen zan:

–Gure guraso maiteak bizi izan baziran, gaur ez genduan orrela ibili bearrik.

Negarrez ere egon izan giñan bein baño geiagotan, gure aitak eta amak egiten zizkiguten maitasunezko zenbait mesede eta beren muxu gozoak gogoratuta, pentsaturik geiago etzigutela emango.

Orain poliki bizi bagera ere, komeri ederrak ikusiak gera gazte-denboran. Jaungoikoak lagun dezaiola gazterik gurasorik gabe gelditzen dan ume gaxoari.

IV

Gabiria baserria naiz Lezo-ko partean egon, Errenteri-tik gertuago dago: milla ta bosteun metro ipar aldera. Terreno menditsu baten gain-gañean dago, toki zelaiean egiña, eguzkiak eta aizeak ondo jotzen dutela. Entzun izan dedanez, Lezo-ko baserririk aundiena da.

Papelera Española eta *Papelera Oarso*-ren tartetik dago bertarako bidea, aldapa-tsua eta neke aundikoa garai artan beintzat.

Baserri au etxe zar zabal baju xamar bat zan, gaur berritu eta aundiagoa eginda dagoan arren.

Etxe onek terreno asko zuan, eta bere inguruan golde-lur asko zituzten zelaiak, arta-soro, alpapa eta gañerako labore-gauzak egiten ziranak; eta beste terreno batzuk, be-

rriz, aldapatsuak. Belaze asko eta onak zitu-
tuan; sagasti onak eta aundiak, geienak
eguzki aldetik; gerezi, udare, aran, intxaur
eta orrelako fruta ere asko zuan.

Ganadua ere asko edukitzen zuten: bei,
txal, asto, ollo, koneju, uso eta abar. Etxe-
-atarian an ibiltzen ziran eiz-txakur bi edo
iru, eta beste kate-txakur bat edo bi ere bai,
iñor kanpokorik zetorreanean adierazteko.

Etxean bear zan ura, Errenteri-ko Aiun-
tamentuaren tuberitik artua zan, erreka urru-
ti xamar zualako.

Baserri ontan bizi ziran senar-emazteak
lau seme eta alaba batekin. Seme zarrena
kanpoan ibiltzen zan lanean, egur-almazen
batean txofer kamioi batekin, eta gañera-
koak etxean lanean.

Etxeko nagusia gizon begi-txiki antzeko
mozkote sendo bat zan, berrogei ta amabost
urte zituana; Jose Agirre bere izena. Seriyó
xamarra zan, broma gutxi zuana; oso langi-
llea, beti lanarekin borrokan ibiltzen zana.

Birigarrua zuan bere izengoitia, eta ni
ere gaiztoa izan, eta gerezi-denboran arbola-
ra igotzen nintzan eta birigarroaren txistua
jotzen nuan, eta gizarajoa asarretu egiten
zan, esanez:

—Orain ere neri burlaka ari al aiz. kaska beltz arraioa?

Mezetara edo norabait joan bear zua-nean, bere jazkera au izaten zan: alkandora barratu bat, galtza urdiñak, bota beltzak eta blusa ere beltza; txapela tellatu gisa jartzen zuan, aurrean muturra luxe-luxea eta bi aldeetara iraulia.

Esan bezela, ganadu asko izaten zan, eta bagenduan lana! Makiña bat ernegazio pasata nago. Bei-kontu jartzen niñuten askotan eta an ibiltzen nintzan larri, korrika zazpi edo zortzi beiren atzetik, okerrera joan etzitezen.

Etxean gelditzen ziran beste bei bat edo bi eta zortzi bat txal, txerri, asto, ollo, koneju eta abar. Aientzat danentzat jatekoa ekartzen izaten genduan lanik asko, eta beste lan pranko ere izaten giñun egin bearrak. Arto-sail aundiak egiten ziran, eta belar eta zakar-metak ere asko egiten giñun.

Komunio aundia ere, baserri ortan nintzala egin nuan, amairu bat urte nituala, eta neri kosta zitzaidan dotriña ikasten! Egunez ez nuan izaten denborarik, eta gaubean jardun bear izaten nuan, gañerako lanak egingdakoan, besteak oiera joaten ziranean.

Etxe artako neskak bazituan ogei ta lau bat urte. Oso seriya zan, eta arek erakusten zidan dotriña. Makiña bat kaskarreko artuta nago, berak emanda. Goizean-goiz jeikitzen giñan, eta oso nekaturik egoten nintzan, eguna lanean pasata. Nik lo artzen nuan nere dotriña eskuetan nuala, eta arek *zapla!* matrallean edo buruan, eta leziyoa ikasi arte etzidan uzten oira joaten. Ez det uste nere amak ere ain gogor artuko niñunik. Olakoe-tan gogoratzen da bat, zeñen gauza tristea dan gazterik guraso gabe gelditzea.

Senideak alkarrekin biltzen giñanean, batez ere gure anai Kaximiro zanak, nola baitzan gu baño zarragoa, asko bizkortzen giñun konseju onak emanaz. Esaten zigun, urteetan aurrera goazen bezela, asi bear genduala zerbait soldata irabazten, eta gu morroi geunden baserrian ez baziguten bere neurrian soldata ematen, beste baserri batera aldatu bearko genduala, eta baserri askotako nagusiak parra egiten zekitela gurasorik gabe gelditzen dan umearen bizkar, esanez: «Ik nere mendean bizi bear dek, ni agintzen ditena egiñez».

Eta neri nagusi arek etzidan beñere txanpon bat ere ematen. Jai ta aste beti la-

nean; igandeetan meza entzun eta korrika etxera. Izaten zan zer egiña eta beti lanean, Ameriketako artzaien moduan beñere jairik egin gabe; eta nik banituan amasei edo amazapi bat urte, eta egun batez esan nion, ni ez nintzala beti debalde lanean ariko eta zerbait ordaindu bearako zidala.

Eta beti esaten zidan:

–Bai, motel; datorren il ortatik asiko gaituk zer edo zer ordaintzen.

Bañan, illabete asko pasa arren, nola etzidan zentimorik ematen, nik pentsatunuan etxe artatik norabait aldegin bear nuala, eta alaxen atera nintzan.

V

Andik Donosti-ko Antigua-ko partean dagoan Artola izeneko baserrira joan nintzan morroi. *Fundación Goyeneche*-ren inguruan dago; bi bizitzako etxea da. Batean bizi ziran senar-emazteak beren familiarekin, eta, ni morroi egon nintzan bizitzan, senar-emazteak bizi ziran, Martin eta Anttoni; abek etzuten aurrik.

Baserri au terrenu aldapatsu batzuen gain-gaiñean egiña dago, eguzkiak eta aireak ederki jotzen dutela. Etxea bera aspal-dikoa da; zarra.

Lur gutxi zuan; maizter batentzat poliki, bañan bi bizitzen ziran. Lurrak, geienak eguzki aldetik zituan; baratza edo labore-toki on xamarrak bazituan; belazeak eta sagastiak toki aldapatsuan; ganaduaren azpita-

rako zakarrik etzuten, eta baso edo txarik ere ez. Ganadua ere gutxi idukitzen zuten, eta kaxkarrak; pentsurik gabe belar utsarekin bizitzen ziran.

Etxe ondoan bazuan zumar-arbol aundi bat; eta muxika-arbolak, aranak, udareak, gereziak eta briñoiak ere bazituan.

Etxe inguruan bazuan putzu txiki xamar bat, eta, euria egiten zuanean, betetzen zan eta bertan edaten zuten ganaduak bear zuten ura. Etxeak berak bazuan bozaera deritzaion ormigoizko ontzi aundi bat, eta tellatuko urak bertara biltzen ziran, eta etxean bear zana andik artzen genduan.

Ni morroi egon nintzan etxeak bazuan beko txoko batean Ama Birjiñ iturri eder bat, eta andik ere ekartzen genduan.

Sarrerako atearen barrendik lotuta egoten zan txakur koxkor bat. Bera beltza zan kolorez, bañan ortzak zuriak erakusten zituan, iñor kanpokorik joaten zanean. Etzan izaten giro arekin. Etxe inguru artara etzan elbirik ere inguratuko berak nabaitu gabe. Orrelako txakurrak ez dira diruarekin ere pagatzen.

Sagar-denboran etortzen ziran kaleko mutil koxkorak sagarrak ostutzera; eta gure

nagusiak, ikusten zituanean, txakurra askatu ta bialtzen zuan, eta an ibiltzen ziran larrri.

Egun batez, bazkalondo batean, ikusi zituau lau edo bost mutil koxkor sagastian zebiltzala, eta an bialdu zuan gure txakur beltza tximista baño azkarrago. Mutil koxkor batzuk aldegin zuten korrika, bañan bat bazan denborarik etzuana aldegitoko, eta sagar-arbolaren gañera igo bear izan zuan, txakurrak txikituko ez bazuan. Gizarajoak antxen egon bear izan zuan arratsalde guztian sagar-arbolaren gañean negarrez, eta gure txakur beltza arbolaren azpian, bere ortz zuriak agertuaz, mutil koxkor ari zaunkaz.

Gero nagusiak esan zidan:

—Sebastian, joan adi sagastira eta ekarzak txakur ura etxera.

Eta ala joan nintzan, eta, nik txakurrari eldu nionean, jetxi zan mutil koxkorra arbolatik bera, eta pena ematen zidan gixarajoak. Begi biak aunditurik zeuzkan negarrez, eta galtzak ere pixez bustita. Gero, nik zerbait egingo nion beldurra ere bazuan; baña zer egingo nion, mutilla postura artan ikusita? Urrikaldu egiten nintzan neroni, eta

esan nion joateko aguro andik eta ez etortzeko geiago sagarrak ostutzera; bañan etzegoan esan bearrik: etzan azaldu geiago multil koxkor ura, eta ez bere lagunak ere.

Etxe artako nagusia, Martin, gizon aundi bat zan, berrogei ta zortzi bat urte zitua-na, naiz eta bere emazteak irorugei izan. Gizon seriyoa, bere bozeadorearen arpegiarekin, sudurra motz xamarra eta lepoa lodia. Bizarra igandeetan moztutzen zuan, bañan pasako zituan iru edo lau illabete buruko illerik moztu gabe; eta, ala zegoanean, ikara ere ematen zuan.

Emaztea ere oso bizartsua zan, eta oni ere senarrak moztutzen zion igandeetan, eta etxeakoandre arek orduan ematen zuan amar bat urte gazteagoa.

Gizon aren jazkera, iñora joan bear zueanean, izaten zan: txapela, alkandora barratu bat, galtza urdiñak, blusa beltza, eta oñeta-koak geienezan alpagata beltzak.

Nagusi ari gustatzen zitzaion ia jai-arratsaldero pasiatzera joatea, eta bere amets guztia izaten zan ardo-puska bat edan eta gero mutur-joka ibiltzea. Iñoiz etorri izan zan etxera arpegia markatuta, bañan oso gustora gizona. Astelenean jarduten zan

neri esaten igandeko goraberak, eta beti pantesi ori izaten zuan, esanaz:

–Atzo eman zizkat alakori ederrak, neronek ere artu nizkian baña!...

Eta berriz ere igandea etortzeko pozez egoten zan, mutil gazte baten moduan, beste kontrariyo batekin bere indarrak probatzeko. Neri soldata ordaintzeko etzuan izaten dirurik, bañan parrandan ibiltzeko sortzen zuan nundik edo andik. Bere gustoko ballara Igeldo ingurua izaten zuan. Gustatzen zitzaion kontrariyo gogor xamarrarekin borrokan ibiltzea.

Ni ara joan eta bereala, soldataren kontua egiten asi giñanean, nik illean kobratzeko egin nai nuan, bañan nagusiak esan zidan urtean ordainduko zidala, eta ala egin genduan tratua, berrogei ta amar duro ordaintzekotan. Pasatu zan urtea eta etzidan dirurik ematen, eta nik esan nion nagusiari:

–Aizu, Martin: urtea pasea da ni emen lanean asi nintzala, eta ez al degu soldatarik?

Eta erantzun zidan:

–Bai, emango diat; laister txekorra salduko diat eta egingo dizkiagu kontuak.

Txekorra saldu eta andikan puska batera

ordaindu zidaten noizbait, eta nik orduan esan nion:

–Begira, Martin: nik illean kobratu nai det nere soldata, al bada.

–Illean ez dek errez izango, motel; nik urtean bein ateratzen diat txekor bat eta orduan izaten diat dirua.

–Ba, nik illean kobratu nai det, eta gañera illean bear ditut gutxieneko zortzi duro.

–Zortzi duro?

–Bai, bai: zortzi duro.

–Emango diat ba illero, bañan ez zortzi duro; illeko askoz gutxiago.

–Ba, ez badidazu ordaintzen nik esandakoa, ni banoa etxe ontatik.

Eta, ura esan nionean, erantzun zidan:

–Guk ere norbait bear diagu laguntzeko eta emango diat ba eskatzen dekana.

Bañan pasa illabete bat, bi, iru eta lau ere, eta dirurik ez, eta nik esan nion:

–Zer degu, nagusi? Abek ez dira guk esandako itzak. Ez al degu dirurik edo zer gertatzen da? Lana bai eta soldatarik ez? Au ez da segira ederra!

Eta erantzun zidan:

–Nik etzeukat ba orain dirurik, motel, eta noizbait egingo dizkiagu kontuak.

–Lenago ere kontua geiago dabil emen dirua baño!

Eta nola ez nuan beñere soldataren usairik ere nabaitzen, egun batez esan nion:

–Aizu, Martin: emengoa ikusia dago; ni ez neike lanean aurrera ola jardun eta banoa emendik.

Eta erantzun zidan:

–Zer egingo diagu ba, motel? Berriz ere bateonbat etorriko al dek noski!

Eta alaxen aldegin nuan baserri artatik, txakur txiki bat ere artu gabe. Ni atera eta andik urte pare batera gaxotu eta il egin zan nagusia; eta bere emaztea ere, bera il da andik bi edo iru bat urtera il zan.

VI

Andik atera eta bereala jakindu nuan Donosti-ko Aiete ballarako Azken-Portu izeneko baserrian morroia falta zala, eta araxen joan nintzan.

Baserri au kamiyoaren ertzean dago, Franco-ren palaziyoa pasa eta bereala. Naiz aunditu eta gaur kale-etxe bezela jarria dagoan arren, garai artan etxe koxkor bat zan.

Baserri ontan bizi ziran senar-emazteak, ezkonberriak, Juan Mari eta Manuela; bi aurtxiki zituzten, seme-alabak; gero izan zuten beste alabatxo bat.

Etxe ontatik berrogei bat metrora, Donosti aldera, kamiyoaren eskubitik dago beste baserri-etxe bat, Mantulene izena duana, gaur Juan-Marienea, eta ukullua eta ganaduak emen idukitzen zituzten.

Gau batez, gu lotan geundela, euria erruz egiten zuan eta Azken-Portu-ren tellatuaren erdia erori zan. Jaunari eskerrak, ez genduan iñork ere miñik artu. Ain zuzen, iñor etzegoan alderdia erori zan. Urrengo egunean, danok Mantulene-ra pasa bear izan genduan, gauza guztiak artuta. Erori zan etxe onen nagusiak orduan berritu eta jarri zuan kale-etxe moduan, eta bere terrenuak Mantulene-ren izenean jarri ziran.

Baserri onek terreno gutxi zuan, eta aldapatsuak, mospelak eta itxaso aldera. Eguzkiak jotzen zuan, bañan arratsaldean. Ganadu gutxi edukitzen zuten. Baratza onak zituan, eta berdura asko egiten zan plazarako. Sagardoa ere egiten zuten, eta gero saldu.

Nagusi arek ogei ta zortzi bat urte zeuzkan. Garai artan gizon kozkor-bikaña zan. Pixatuko zituan larogei ta zortzi bat kilo. Norabait joan bear zuanean, bere jazkera auzaten zan: txapela, alkandora zuria, galtza urdiñak, txaketa eta zapata beltzak.

Etxe ontara etorri eta bereala, asi giñan soldataren tratua erabakitzen. Nagusiak galdetu zidan:

—Zenbat irabazteko asmoa dek?

Eta nik erantzun nion:

–Zortzi bat duro illean.

–Zortzi duro asko izango dek. Nik emango dizkiat sei. Konforme al aiz?

Eta berriketan ez aritzeagatik, baietz esan nion.

Eta baserri ontan nola sagardoa saltzen baitzan, inguruko baserritarrak ere etortzen ziran sagardotegira, eta egun batez gure nagusi arek or ikusten gaitu bola-tokian Bera-bera-ko Balentin eta biok izketan ari generala, eta illunabarrean, ukulluko lanak egiten ari giñala, galdetu zidan:

–Zer ziken Balentiñek irekin?

–Balentiñek? Ezer ez. Or jardun gera biok izketan kontu kontari.

–Bai; orrek zerbait baziken irekin. Zer esan dik? Nik baño soldata geiago emango dikela?

–Gizona, guk ez degu soldata-konturik berritu ezertarako.

–Bai, bai; zuek ez nazute ni engañatzen. Nik bazekiat emen jendea zer dabillen. I bere etxera morroi eraman naiean zebillek ori, eta emendik aurrera illean duro bat geiago emango diat nik: lenago sei bezela, ontaz aurrera zazpi duro.

Eta, neronek batere uste gabe, nere soldata «puja-berritu» egin zan.

Gero gure nagusi arek sagardo gutxiago egiten zuan, eta lan gutxiago baserrian; neroni ere geienetan diru-premian arkitzen nintzan, eta beti morrontzan ere aspertuta nengoan, eta egun batez esan nion:

–Aizu, Juan Mari: nik laister soldadu joan bear det, eta txanpon batzuk irabaztera norabait joan nai nuke ba.

Eta erantzun zidan:

–Bai, motel; emen gu biontzako lan gutxi zeukagu; eta, nai baldin badek, nunbait asi adi.

VII

Alaxen, egun batez Donosti-ko Patxi Erdozia jaunarengana joan nintzan. Jaun au transportista zan, eta Donosti-ko gas-fabrikako ikatzak kaiean baporetik artu eta bere kamioiakin ekartzen zituan. Nik galdetu nion:

–Neretzako lanik bai al daukazu, nagusi?

Eta erantzun zidan:

–Bai, motel; lana bazeukagu. Etorri nai dekenean.

Gas-eko fabrika Donosti-ko Morlans ballararen sarreran dago. Gasa ikatzarekin egiten dute, eta antxen asi nintzan lenengo palaketan ikatzarekin, etortzen ziran kamioiak ustutzen.

Garai artan *Hernani* baporea zan fabrika ontarako Asturias-tik ikatza ekartzen zuana. Amabostean bein edo ola etortzen zan, eta ura ustutzen lau bat eguneko lana izaten genduan. Gañerako egunetan etxean base-rrian jarduten nintzan nagusiarri laguntzen.

Bapore ori zetorrenean, gure nagusi Patxi Erdozia bera etortzen zan kotxearekin guri abixatzera, berarekin lanean aritzen giñanak kamiyo-ertzean bizi baigiñan. Ni Azken-Portu-tik oñez joaten nintzan; goizean bost et'erdietan jeiki, ganaduak gobernatu, gosaria artu eta zazpi t'erdiak alderako lanera. Baziran ni baño urrutiago bizi ziranak ere, bañan aiek ere oñez ibiltzen ziran; ez baitzan gaur bezela autobusik.

Gure *Hernani* baporea desegin zuten zarrak zalako, eta andik aurrera ni egunero ibili nintzan Erdozia-rekin, gerrara joan nintzan arte.

Amar pezta irabazten genduan eguneko soldata, eta etxean astean ogei pezta pagatzen nuan, eta goiz-illunabarretan etxeko lanetan lagundu.

Uralde baserriko Kalisto Dendategi genduan enkargatua, eta berarekin lanean jarduten giñan amalau edo amabost mutil: Mal-

miztegi-ko Antonio zana, Errotatxo-ko Juan Kruz zana, Ortatxiki-ko Luis zana, Miramonzar-eko Joxe zana, Errondo-ko Antonio, Txabola-ko Manuel, Errera-ko Manuel Gorra, Pakea-ko Bernardo, Beasain-go Joxe eta Lesaka-ko Joxe Mari. Amara aldeko beste erdeldun batzuk ere izaten ziran tarteka.

Garai artan Loiola-n, Txomin-enean, billera egiten zan. Esku-soñua jotzen zuten, eta an ibiltzen ziran neska ta mutil dantzan, eta ni ere igandeetan araxen joaten nintzan nere lagunekin. Orduko nere lagunak ziran Gure Pakea-ko Rafaelxo, gaxotu eta Andazarrate-ra eraman eta bertan il zana; Uralde-ko Xanti; Juanindegi-ko Modesto; Ugalde-ko Pedro, eta baita ere Erreka-ko Simon zana eta Etxetxiki-ko Joxe zana, gerran, baita Madrid aldean eta bestea Teruel edo Belchite alde ortan il ziranak.

An puska batean ibili eta gero Ernani-ko tranbean Donosti-ra; eta emendik Aiete-ko Munto baserrira. Emen sagardoa saltzen zuten, gaur ere saltzen duten bezelaxe, eta merienda pixka bat egin eta etxera danok zintzo, urrengo goizean ere lanera joan bear baitzan.

Olaxe izan zan nere gazte-denbora.

VIII

Ni ez naiz oroitzen gauza ontaz; bañan, nere anai zarragoak esaten didatenez, gure aita zana ere bertsoan aritzen omen zan gaxotu baño lenago, eta neri ere oso gazterik sortu zitzaidan bertso-zaletasuna.

Mutil koxkorra nintzala, nere lana beiak larrean zaitzea izaten zan, eta geienean poltxikuan izaten nuan bertso-paper zar edo berriren bat, eta antxen jarduten nintzan kantari, udaberrian txoriak baño alaiago; eta bertso on xamarrak edo nere gustokoak baldin baziran, azkar ikasten nituan memoriz.

Garai artan nik ezagutzen nuan bertsolaririk onentxoena, gure Txirrita aundia zan, eta berak plazan kantatzen zituan bertsoak eta paperean jartzen zituanak izaten ziran nere gogozkoak.

Garai artan ni igandeetan Errenteri-ra joaten nintzan meza entzutera; eta, mezeta-tik ateratzen giñanerako, eleiz aurrean an egoten zan gizon bat bertso-paperak saltzen. Igandero ateratzen zan iru orriko bertso-paper bat, *Bertsolariya* zeritzana, dana bertso zar eta berriakin beteta, bere prezioa amabost zentimo zuana. Nere kutizi guztia bertso-paper aiek erostea izaten zan, beikontu nenbillen garaiean kantatzeko edo ikasteko.

Garai artan ere, gure errietan festak zira-nean, izaten ziran bertsolariak, eta joateko modurik izaten baldin banuan, an joango nintzan, naiz urruti xamar izan, eta bai gus-tora asko entzun ere.

Neroni gutxitan jardun izan naiz plazan bertsoak kantatzen. Naiago izan det pape-rean jarri, eta baditut bertso banaka batzuk gauza baten edo bestearen gañean jarriak, eta inprentatuak ere. -

Nik amazapi urte nituala, Donosti-ko Kursaal-ean egin zan bertsolari-txapelketa bat. Artarako lendabizi Donosti inguruko errietan aukeratzen zituzten bertsolaririk onentxoena, beren bertso-saioak egin ondoren. Txapelketa artako zuzendariak egun

batez Aiete-ko ballarara etorri ziran; eta, emengo bertsolari zarrak eta gazteak bildu eta alkar probatu ondoren, Kursaal-era joateko gelditu giñan: zarretatik Aranburu-ko Martin Etxeberria eta Berabera-ko Nikolas Sorozabal, eta gazteetatik Oriamendi-ko Jose Leon eta ni.

Esan bezela, txapelketa-egun artan bildu giñan Kursaal-era, eta ango zuzendariak esan zidan, Jose Leon etortzen bazan, guk biok kantatu bear genduala lendabizi; bañan, ez bazan etortzen, ezin kantatuko nuala bakarrik. Eta nola etzan azaldu, ez nuan kantatu.

Bañan esan zidaten, txapelketa bukatzen zanean joateko beste bertsolariekin batera bazkaltzera, eta an joan giñan agintari, zuzendari eta bertsolari danak ostatu eder batera; an agindu zidaten neri ere kantatzeko, eta beste bertsolariai bezela eman zidaten saria; eta, egun zoragarri bat pasatu ondoren, eman zitzaion bukaera egun artako bertsolari-festari. Egun artan Basarri gelditu zan txapeldun.

Garai artako bertsolari zarrak bazuten Donostian txoko polit bat, oso maite izaten zutena: kale Easo-n –gaur Víctor Pradera–,

Bar Manolo. Donosti aldera etortzen ziran bertsolariak, ostatu ontara biltzen ziran; Txirrita baitzan onera maiz xamar etortzen zana, eta nik uste det danak aren arrastuan ibiltzen zirala. Gañera, bertako nagusia Manuel ere bertso-zale purrkatua baitzan.

Egun artan, guk bazkaldu genduan ostatuan, bertsolariak irten da gero, inguratu zitzaidan nere lagun bat, Patxi Lazkano, Al-tza-ko Otxoki baserrikoa, eta bera ere bertsolaria (1), ni baño gaztexeagoa. Etzekian nunbait ongi Donosti-ko berri eta neri gal-detu zidan:

–Aizak: ik bai al dakik bertsolariak nun egiten duten billera?

–Jakingo ez diat ba? Ea, etorri adi nerekin. Bereala erakutsiko diat.

Ala, etorri giñan Manuelen ostatura, eta an zeuden bertsolari geienak, Txirrita beren maixu aundiarekin, batzuek maiean exerita ta beste batzuek zutik. Gu sartu giñanean, etzan iñor ari bertsotan; danak ixilik zeuden.

Txirrita, berriz, bakar-bakarrik mai txiki

(1) Patxi Lazkano onek ere liburua egiña du, bere gerra-ko ibillerak kontatuz: *Tiro tartean bertsotan*, Auspoa 168, 1983.

batean meriendatzen ari zan, kaxuelkada bat tripaki eta botilla bat ardo bere aurrean zituala. Eta nola ortzik etzeukan eta tripakiak ere zail xamarrak zeuden, aoan ibilli ta mai-pera botatzen zituan. An bazebillen txakur txuri txiki bat eta arentzat etzetozten gaizki.

Ontan nere lagun Patxik esan zidan:

–Bertso bat botako niokek bai oraintxen Txirritari!

–Bota akiok ba, motel!

–Lotsatu egiten nak!

–I lotsatu egiten baldin baaiz, neronek botako zioat ba!

Alaxen, aulki bat artuta, jarri nintzan Txirritaren mai artan, eta esan nion:

–Jainkoak gabon dizula, Txirrita. On egin dizula!

–Iguualmente gazte; eskerrik asko.

Eta ontan kantatu nion nik bertso bat; ez naiz artaz ondo oroitzen, bañan olako zerbait zan:

Ederki kosta zaizu, Txirrita,
kaxuelka ori jatia,
tripaki-puxka pranko badezu
mai-pe ontara botia.

Txakur onek gaur zure kontura
egin duan banketia!
Onentzat ez da gaizki etorri
zuk ortzik ez izatia.

Ori aditu zuanean, bultza zion Txirritak
kaxuelari —ordurako geiena ustuta zeukan—,
trago bat edan da bereala bertsoan asi zan,
olako zerbait kantatuaz:

Txakur txar onek antzeman dit
nik ortzik ez daukatena,
berialaxen billatutzen du
neri sobratzen zaitena;
kaxuelka bat tripaki banun
ta berak jan dit geiena,
gero kontua pagatzeko ni,
orrek ematen dit pena.

Orduan ekin zion beste bertsolari batek,
esanaz parrandan gastatzen zituan diruekin
etzeukala ortz berriak jarri eziñik, eta or-
duan errezago jango zituala tripakiak, txa-
kurrari eman gabe.

Kursaal-ean ederrak kantatu ziran, ba-
ñan an kantatu ziranak etziran batere txarra-
goak. Gu gaubean, amarrak aldean, atera gi-
ñan etxe aldera, eta artean ere an gelditu zi-
ran danak, zeñek baño zeñek ederragoak

kantatuaz. Zeru txiki baten antza ematen nion nik Manuelen ostatuari egun artan. Bazirudian aingeru-talde bat ari zala kantari, triste zeudenak alaitu naiean. Izan ere, orrelako egunak gogoangarriak izaten baitira Euskalerrian, batez ere euskal oitura onak maite ditugunentzat.

IX

1936-garren urteko uztaillaren 6-an, aterra giñan Aiete-tik nere lagun Pedro eta ni bizikletan, arratsaldeko lauetan, Pamplona-ko San Fermin festetara.

Aiete-tik erten eta lenengo Tolosa-ra joan giñan; emen napar kamiyoa artu genduan, eta Betelu-n barrena, Azpiroz-ko aldapan gora. Kamiyo ontan gora goazela, badago baserri bat bide-ertzean, eta araño bizikletaren gañean joan giñan, eta andik gora bide-puska batean oñez, ia aldapa bukatu arte; emen jarri berriz ere gañean eta Lekunberri-raño. Bero aundia nola baitzan, egarritu egin giñan, eta antxen aritu giñan zerbait edari freskoa edaten.

Tortillatxo bana ogiarekin eta zato txiki bat ere bagenduan edariz beteta biderako ar-

tua, eta etzan gaizki etorri. Gogoak ematen zigunean, exeritzen giñan kamiyo-ertzean eta txurrua bana edo bina edan, eta segi berriz ere.

Lekunberri-ra bitarte kosta zitzaigun pixka bat, bañan andikan aurrera, nola baitzan zelai xamarra, oso ederki joan giñan.

Pamplona-ra gaubean, amarrak alderako, iritxi giñan; eta zerbait jan eta edan genduean, ibili giñan kalean aruntz eta onuntz. Bañan aspertuta geunden, eta nunbait etzan bear genduala pentsatu genduan. Oyik ez genduan arkitu, eta etxeetako ateondo geienetan ere jendea zegoan lotan; eta nola gau-giro ederra zegoan, *Paseo de la Taconera* deritzaion tokira joan giñan. Beste asko bezelaxen, gu ere aulki baten gañean etzan giñan.

Lotan geundela, goizeko laurak alde ortan, nabaitu giñun tiroak *dik-dak!*, *dik-dak!*, eta nik esan nion nere lagunari:

—Nabaitu al dituk tiroak, Pedro?

—Bai, bañan ez adi ikaratu; lo egin zak. Karteristen bat edo zerbait orrelako ibiliko dek, eta ari tirako zioken guardiak.

Bañan andik pixka batera, *dik-dak!*, *dik-dak!* berriz tiroak. Eta orduan esan nion:

–Motel, motel! Goazemak emendik os-tatura eta kafe pixka bat artu dezagun.

Oraingo gisa, orduan ere jende asko bil-tzen zan Pamplona-n festa-usaiean. Probin-tzi askotatik etortzen ziran gazte-taldeak be-ren musika eta guzti, eta probintziari egoki-tzen zitzaizkan jazkerak eta lepoko pañue-luak ekartzen zituzten; eta nola garai artan oponiyo edo partidu asko zan, baita beren partiduari egokitzen zitzaizkanak ere; eta, ikusten danez, batzuk besteakin asarretu egin ziran.

Guk ez gendakigun Pamplona-ko berri, eta bertako jendeari entzuten genion nola esaten zuten:

–Oraintxen laixter etorriko dira Rocha-pea-tik gora zezenak...

Eta guk alkarri esan genion:

–Artu ditzagun sarrerak eta goazen pla-zara.

Eta ala joan giñan, eta an ikusi genduan komeri polita. Iritxi ziran zezen oiek plaza-ra; au dana jendez beteta zegoan; zezen oiek etzekiten zeñi segitu ere; bereala idiki zituzten ukulluko atearak, eta an sartu ziran tximista baño azkarrago.

Ez dakit sei ala zortzi ziran, bañan abe-

tako bat oso maltzurra zan, eta etzan bestea-kin batera sartu. Arrapatzen zuana jo ta aidean botatzen asi zan, eta garbitu zuan plaza ederki. Gero idi zar batzuk atera zituzten; abei segika joaten zan ateondoraño, bannan berriz ere jira ta plazara. Gero torero moduko bat etorri zan zapi gorri batekin, eta ari segika sartu zan.

Gero atera zituzten bi zezen koxkor batera, mendi-betizu oietakoak, eta aiek ere jarri zuten festa ederra. Beti korri egiten zuten, arrapatzen zutena aidean botata. Eskerrek etzutela min aundirik emango noski.

Dultzaiñeroak ere baziran ederki jotzen zutenak, eta beste gazte-talde batzuek *jota navarrak* kantatzen zituzten. Aiek ematen zioten festari bere garrantzia. Logale giñanak ere esnatzen giñuzten ederki, eta egun aietan etzan izango biotz tristerik, aiek alai-tuko etzutenik.

Eta eguerdi arte ibili giñan zerbait ikusten. Ikusi genituan txarlatanak, feriantek, kinkilleruak, eta musika edo soñua kalez-kale.

Gero, etxerakoan, ango zerbait ere ekarri bear genduala eta baratxuri-korda aundi bana artu genduan, korda bakoitza iru pezta

pagatuta; eta or etorri giñan, aiek geren lepotik zintzilik genituala. Illunabarrean garaiz xamar iritxi giñan Donosti aldera, eta esan genduan:

—Loiola-ra joan bear diagu, Txomiñ-en billerara.

Neskatxa asko joaten ziran ara dantzara, gure ezagunak, eta aientzat izan ziran gure baratxuri geienak. Batek azitarako bear zuala, eta besteak ere bai; eta batek buru bat kendu, eta beste batek beste bat edo bi, eta akabo gure baratxuriak. Etxerako ekarri giñun bai batzuk, bañan gutxi.

Orduantxen izan nintzan Pamplona-n lenengo aldiz. Orduan ez genduan jakin zergatik tira zituzten tiroak, bañan egun asko baño lenago nabarmendu zan.

X

Andik amar bat egunera sortu zan España-ko gerra. Orduan jakin genduan Pamplo-na-ko tiroak zer ziran.

Donostia-n lendabizi militarrek altxatu ziran. Guk Azken-Portu-tik entzuten giñun ederki Loiola-ko kuarteletan egiten ziran tiroteo beldurgarriak, militarrek barrendik eta gorriak kanpotik.

Donosti barruan ere egin ziran tiroteo latzak, *Gobierno Civil*-ean, *Casino*-an, *Hotel Maria Cristina*-n..., batzuk barrendik eta besteak kanpotik; bañan azkenean militarrek errenditu ziran, eta gorriak gelditu ziran nagusi, naparrak sartu ziran arte.

Garai artan, Donosti barruan egunero tiroka nola aritzen baitziran, baserritar gutxi

joaten zan berdura eta esnearekin plazara; eta gure nagusi Juan Marik esaten zidan:

–Autobusik etzebillek, bañan karretillan eraman leikek zerbait plazara, eta txanpon ederrak artu ere bai.

Eta alaxen joaten nintzan bala tartean barrena, nere karretilla artan letxu-mordo bat eta beste papata puxka batekin.

Egun batez, Aldapeta barrenean ninjoala, ikusi nituan bi emakume, bat baserritarra eta bestea kaletarra, bata besteari esnea ematen ari zirala eta kaletarrak bere marmita txikia esnez beteta eskutik zintzilik zeukala.

Tira zuan norbaitek ere tiroa alde artara, eta marmita txikia pasa zuan balak alde batetik bestera, eta an joan zan emakume gajo ura bere marmitatik esnea zeriola, eta baserritarra ere azkar asko sartu zan ateondo batean.

Ni ala ere aurrera; Bretxako plazaraño joaten nintzan. Ernani kalean barrena ninjoala, botika bat badago an etxe-kantoi batean, eta nere karretillaren otsa entzuten zuanean, ango botikarioak persiana pixka bat altxa eta ala esaten zidan:

–Zer daramak or, gazte?

–Emen letxua eta patata.

–Patata? Ea ekatzak onera! Zenbat kilo dituk?

–Ogei.

–Ondo da; nik artuko diat dana. Zenbat balio dik?

Garai artan kiloak erreal bat baliokozuan geienaz ere, bañan nik pezeta bat esaten nion, eta antxen ematen zizkidan ixil-ixilik ogei pezeta. Gero ala esaten zidan:

–Baldin badek, bigar ere ekarri.

Urrengo egunean ere laister entzuten zuan nere karretillaren otsa. Ni pare artara irixten nintzanean, azkar asko altxatzen zuan persiana. Orrelaxen ibili giñan egun batzuetan.

Plazara joaten nintzan, eta letxuak, naiz batzuk luzatuak izan, agertu ordurako eramaten zizkidaten eskuetatik; ez baitzan ia iñor joaten berdurakin. Eta amar zentimo balio etzuten letxuak, pezeta bana saltzen nituan.

Bañan gero, naparrak Irun aldera inguratu ziranean, ango tiroak entzuten asi giñan. Ipar-aizea zanean, beintzat, Aiete ballararik ere ederki entzuten ziran fusil eta

ametralladorakin egiten zituzten tiroteo la-
tzak.

Nik banituan donostiarrak lagun bat ba-
ño geiago ere, Irun alde ortan gerran zebil-
tzanak. Or ibiltzen ziran batean gerrara joan
eta bestean etxera etorri, eta abei galdetzen
nien nik:

–Zer moduz dijoa ba gerra ori?

Eta erantzuten zidaten:

–Gerra ori? Etzekiat zer gertatu bear
duan! Errez menderatuko genituala uste ge-
nin, bañan napar oiek gogor eusten ziotek
beren aldetik. Egiten duten pixka, beti au-
rrera egiten ditek oiek.

Urrena, berriz, Andoain inguru eta Bu-
rutza-mendi aldetik ere tiroak entzuten asi
giñan. Gure auzoko gizon batek ala esaten
zuan:

–Emen dituk naparrak Tolosa aldetik
beera. Tiroak gero ta garbiago zetozte.

Eta arrazoi zuan: pixkabanaka beti au-
rrera zetozten, Donosti inguruko mendi eta
erri danak artuaz. Asko kostatzen zan, ba-
ñan berenganatu zuten Irun alde ori.

Agorrillaren 12-an etsi zuten gorriak eta
bazijoazten danak Bilbao aldera.

Garai artan ni ikatz-lanean ibiltzen nin-

tzan Donostia-n; eta, larunbata nola baitzan, illundu arte lanean jardun giñan. Gero kai aldera joan giñan asteko soldata kobratzeko asmoan, nagusia inguru artan bizi baitzan.

Bañan etzegoan egun artan kobratzerik. Ura zan ango ixkamilla eta jendearen eromena! Danak, koltxoiak eta arrapatzen zizutzen etxeko tresnak arturik, arrantzaleen baporetan sartu eta al zuan guztia bazijoan Bilbao aldera.

Txoferrak eta guk, mutillak, alkarri esan genion ohea izango zala etxe aldera joatea.

Banentorren etxe aldera, Azken-Portura, eta orduantxen zetozten kamiyoan beerra, Ernani aldeko eta Oriamendi-ko gallurrean egon ziran gizonak, beren kañoiak eta gerrarako tresnak artuta.

Ikusi niñutenean aiek beera eta ni gora nentorrela, erderaz esan zidaten:

—¿A dónde vas tú?

—Yo a casa.

—¿Cómo que a casa? Vente con nosotros para abajo, que tenemos que ir a Bilbao.

—Pero vengo de trabajar y tengo que mudarme esta ropa sucia.

Ikatzetan arropa, arpegia ta dana zikin-

-zikin eginda baintorren. Eta aiek esan zidaten:

—¿Cómo que a mudarte? ¡Vente con nosotros!

—!Si vivo aquí mismo, en este caserío!...

—Bueno, bueno: sigue y luego vienes.

Bañan ni laister salta nintzan kamiyotik baratzara, eta beko txokoan barrena joan nintzan etxera.

Afaria atera zidaten, bañan ez neukan jateko gogorik. Nere barrena etzegoan lasai, naparrak nolako sarrera egiten zuten ikusi arte. Gau guztian gelako leioan egon nintzan zeletan. Goizeko ordubata alde arte, gorriak pasa ta pasa aritu ziran Donosti aldera, gero emendik Bilbao aldera jarraitzeko. Asarraturik batak besteari esaten zioten erderaz:

—¡Quién iba a pensar que teníamos que perder tan fácil estas posiciones!

Eta besteak erantzuten zion:

—Es que, por lo visto, los cab..... de ellos tienen mejor organización y más disciplina, y no hay quien pueda con ellos. Lo mejor que podemos hacer es marcharnos para Bilbao.

Eta orrelaxen joaten ziran.

Urrengo goizean garaiz gure nagusi Juan Marik esan zidan:

–Lo egin al dek, motel?

–Nik ez; gau guztian leioan egon naiz.

–Guk ere ez diagu lo askorik egin. Bañan aizak: bartarratsean oiera muturra garbitu gabe joan al aiz?

–Ara ba: ez neukan gogo aundirik ere arpegia garbitzen asteko.

Ta orduan garbitu nuan sukaldera jetxita. Urrena ala esan zidan:

–Zer gerta ere, orain, napar oiek etortzerako, ekarri bear diagu gurdi bat alpapa.

Alaxen, gurdi janariarekin gatzela, asi ziran napar agintari eta gañerako jendea automobilletan pasatzen, Tolosa aldetik Ernani aldean barrena Donosti-ra zijoaztela, Aietetik pasatzen ziran kotxeak beintzat Napparroa-ko periodikoak boteaz.

Eta andik laister jakin nuan, gure iru anai ere, Kaximiro, Joxe eta Antonio, Bilbao aldera joanak zirala.

XI

Gorriak Ormaiztegi-n trenaren zubia puskatu egin zuten, eta andik aurrera Donosti-rako bear ziran gauzak, kamiyoz eka-
rri bear izan ziran, berriz zubi au egin zuten arte.

Erdozia jaunak, gure nagusiak, bazeuzkan bere txoferrak, bañan Lizeaga zeri-
tzaion beste transportista batek bazeukan txofer bat ona eta oso trebea, Migel Anza izena zuana; eta Erdozia-k esan zion Lizea-
ga-ri, ea txofer ori prestatuko zion Ormaiz-
tegi-ko zubia egin arte, eta baiezkoa eran-
tzun zion. Eta ala etorri zan Migel astelen
goiz batean, gu danok garajejan geundela,
eta Erdozia-k esan zion:

-Etorri al aiz, Migel?

–Bai; onera etortzeko agindua eman dit nere nagusiak.

–Ara ba emen kamioi berria, ik estrañatu bear dekana, *marca internacional*. Emen zeudek nere mutil guztiak, eta abetatik artu itzik bi, erorrek nai ditukenak, ire laguntzaille izateko. Donosti-tik Zumarraga-ra asi bear dek gauzak eramaten eta ekartzen.

Migelek ongi ezagutzen zituan Erdozia-ren mutillak, eta bazekien langille bizkorrak bear zirala kamioia azkar betetzeko eta ustutzeko, eta au erantzun zion:

–Ba, nik bear ditudan mutillak abek dira: Manuel Gorra eta Sebastian.

Eta alaxen asi giñan lan artan. Egunean iru jornara egiten genituan Donosti-tik Zumarraga-ra. Joaterakoan geienez jaboia eramaten genduan Lizarriturri-ren fabrikatik, eta etortzerakoan, berriz, gauza guztietatik ekartzen genduan: ikatza, arrautza, platanua edo egokitzen zana.

Manuel Gorra Errera-n bizi zan, eta ni, berriz, Aiete-n, eta goizeko laueterako Donosti-ko *Autonomía* kalean egon bear izaten genduan. An zegoan Erdozia-ren garajea, eta ara biltzen giñan txoferra eta bi mutillak. Automobillean asko ibiltzen giñan, ba-

ñan bai oñez ere; gaubean guk lanari uztera-ko izaten baitziran amaika t'erdiak edo amabiak, al zanik azkarren ibilita gañera, eta berriz ere oñez etxera danba-danba.

Patrikatik jan eta orrenbeste ordu lanean pasa eta amar pezta eguneko soldata. Nagusi arek ere, beste askoren moduan, altzairua baño gogorragoko biotza baitzuan. Guk esaten genion:

–Patxi, guri otorduak pagatu bear dizkiguzu ba... Ezin ibiliko gera geuren patrikatik pagatzen degula.

–Nik otorduak pagatu zuei? Ez bazerate konforme, segi etxera!

Oso ordu gutxi izaten genduan gaubean lotarako, eta Manuel Gorraak eta nik bereala lo artzen genduan txoferraren ondoan motorraren berotasunarekin.

Gu lotan giñala, txoferra aspertuta joaten zan, ixil-ixilik orrenbeste bidean. Bañan Ezkio ingurura irixten giñanean, biok astintzen giñun esanaz:

–Begira, begira Ama Birjiña txuri-txuri!
Eta guk sinisturik:

–Nun? Nun?

–Ara, ara nun dagoan aritz-arbolaren puntan!

Eta gezurra. Urte batzuk lenago jendea erruz ibili zan inguru aietan, Ama Birjiña ikusten zutela esanaz; baña dana kontua. Autobusak eta tasistak egin zuten orduan itxasora gabeko Ameriketa. Izandu ziran Ama Birjiña ikustera utsik joan ziran neskatxa gazteak eta «maletarekin» etorri ziranak; gero jendeak esaten zuan Ama Birjiñaren milagrua zala.

Lenbizitik sinisten genion txoferrari, bañan gero ez genion kasorik egiten: arek gu esnatzeagatik eta toriatzeagatik esaten baitzigun.

Oroitzen naiz, Zumarraga-ra joaten giñanean, trenean nola joaten ziran soldaduak Beasain alderaño, eta gero emendik automobilletan frentera. Eta kañoiak eta gerrarako beste tresna asko ere orrelaxen eramaten zituzten.

Egun batez, gu an lanean ari giñala, etorri zan gorrietako aideplano bat. An ibili zan erriaren gañean bueltaka, bañan etzuan bonbarik bota; eta gu an egon giñan bagoi baten azpian gordeta, aldegin zuen arte.

Ikatzetan lanean genbiltzala, Altsasu-ra ere joaten giñan ikatz billa, eta Eguberri egun batean ikusi genduan komeri polita.

Kamioikada bat ikatzarekin bagentozen eguerdiko ordubata alde ortan Donosti alde-
ra, eta Tolosa-ko *Papelera* parean or ikus-
ten ditugu gizon baserritar batzuk, eskuak
gora jaso ta «Gelditu! Gelditu!» esaten zu-
tela.

Eta gure txoferrak ala dio:

–Aiton abek ere umore onean zetozte-
ba, amaiketakoaren indarrarekin muturrak
bero-bero eginda.

Bañan berealaxen beste batzuk, eta aiek
ere berdin: eskuak gora jaso eta gelditzeko.

Gure txoferra bolanteari alde batera eta
bestera ematen asi zitzaion, bañan automo-
billa, berak nai zuan tokira; direzioko barra
arrastaka baitzetorren, eta baserritar aiek
uraxen adierazi nai guri.

Ibai-baztarreko petrillaren kontra gelditu
giñan, juxtu xamar putzura erori gabe; eta,
egun aietan nola elurra eta euri asko egin
zuan, ibaia puntaraño betea zetorren.

Beasain-en artu genduan Tolosa-ra zeto-
rren gizon bat; ikatz gañean exerita ekarri
genduan, eta ala esan zigun:

–Nik egin det eskapada latza! Kamioia
amildu izan bazan, ni joango nintzan lenda-
bizi uretara.

Arek etzuan kontuan artzen gu ere an
joango giñala, ez bera bakarrik.

Eta orrela ibili nintzan, nere kinta deitu
zuten arte.

XII

Alako batean, bialdu zidaten Donosti-ko Aiuntamentutik soldaduskara joateko pape-
ra. Donostia-n ere bazan, beraz, beste Al-
berto-ren bat. Gerrak beti eman izan dit bel-
durra, eta ala esan nuan etxean:

–Oraintxen galdu naiz.

Soldadu joan bear eta ez nengoan segu-
ru zein urtetan jaioa nintzan. Ala esan nuan:

–Ea ni 37-ko kintua naizen, eta kinta ori
soldadu joaterako gerra bukatzen dan!

Eta alaxen igande-arratsalde batean gure
nagusi Juan Mari eta biok joan giñan Oiar-
tzun-go bikario jaunarengana, eta esan ge-
nion ea begiratuko zuan mesedez liburuan
ni noiz jaioa nintzan. Begiratu zuan eta bost
egunez 36-ko kintak arrapatzen niñun, eta
papera zuzen bialdu zuten Aiuntamentutik.

Alaxen etorri giñan triste asko Oiartzun-
-dik etxera. Ez nuan orduan pentsatzen, ge-
ro joango zirala 37, 38, 39-koak eta beste
asko ere.

Donosti-ko Aiete ballaran bizi giñanak,
bi lagun giñan kinta artakoak: Erreka base-
rriko Simon Balerdi ta ni.

Simon mutil mozkote xamarra zan, ba-
ñan gorputzez zabala, oso bizartsua –gor-
putz guztian zuan bizarra– eta indar asko
zuana.

Egun batez joan nintzan neroni bakarrik,
beiak eta gurdiarekin, mendira egur billa.
Aldapatxo batean kargatu nuan izugarrizko
gurdikada egurra, eta ez nintzan piyaten
bakarrik abiatzera, amilduko zan bildurrare-
kin. Neregandik gertu xamar ari ziran la-
nean Simon eta bere aita; eta, gu ain lagun
maiteak izanik, nik otsegin nion esanaz:

–Simon, etorriko al aiz mesedez pixka
batean, gurdi oni eltzera?

–Bai, motel; etorriko ez nauk ba? Egon
adi pixka batean. Bereala or nauk.

Etorri zan; jarri zan gurdiaren azpiko al-
detik kurpillaren parean eta esan zidan:

–Ik segi beiakin!

–Ez, Simon; or oso leku txarrean jartzen

aiz. Deskuiduan amiltzen bada, ortxen gelditu bearko dek azpian.

–Ez, ez; ik segi zak lasai, ni emen baldin banaiz gurdi au ez dek amilduko ta.

Eta alaxen, berari eskerrak, atera genduan gurdikada egur galanta.

Simonek indarra bazuan saltzeko ere. Segan eta aizkoran ere ederki egiten zuan. Eta indar asko zuan mutil bat izateko, aurtxo bat bezin umilla zan.

Eta alaxen atera giñan San Sebastian egunez biok Aiete-tik. Bere familian bizi zan gurasoak eta bi anai eta lau arrebakin, eta pena ederrarekin gelditu ziran, danak negarrez etxean, gu frentera atera giñanean. Aren arrebak egin zizkiguten *pasamontañak* eta *goanteak*, mendian oztu ez gintez.

Donosti-ko Kasinora, orain Aiuntamentua dagoan etxe ortara, bildu giñan kinto guztiak, eta gero emendik estaziora; emen trenean sartu eta danok kantari ta bullan Pamplona-ra, eta geienak an gelditu giñan, instruzioa ikasten.

Gero Simon, beste lagun batzuekin, Madrid-a bialdu zuten; eta an, Somosierra-n-edo gerran zebiltzala, metralla-puska

batek saietsean jo eta zulo aundi bat egin
omen zion, eta bereala il omen zan.

Nik frentetik ere eskribitzen nien aren
arrebai, eta abek esan zidaten nola il zan.
Pena ederra artu nuan ori jakin nuanean,
anaiak bezin alkar maiteak baigiñan biok.
Jainkoak berekin izan dezala.



XIII

Pamplona-n izan nituan soldadu-lagun jator asko, euskaldunak eta erdaldunak ere bai. Euskaldunetan baziran Donosti, Andoain, Tolosa, Beasain, Zumaia, Bidania eta Eskoriatza-koak.

Askotan ibiltzen giñan danok alkarrekin, anaiak bagiña bezela. Pamplona-n ardo onak izaten ziran; eta, baxo-erdi batzuk edanez, alkarri esaten genion:

—Orain emen ederki gabiltzak, bañan aurki joan bearko diagu guk ere gerrara, beste asko joan diran bezela, eta orduan aztuko dituk Pamplona-ko baxo-erdiak eta emen elkarrekin pasatzen ditugun ordu atsegin abek.

Batek esaten zuan:

–Zer ikusi bear ote degu? Mutillak, gerra gauza tristea izango dek!

Eta besteak:

–Sasoirik onenean il bear ote degu ba?

Eta beste batek:

–Gure familia gogoratzen zaidak. Gure aita eta ama an egongo dituk negarrez, ni nola ote nabillen pentsaturik.

Eta beste batez, berriz:

–Nere andregaia ere triste egongo dek, gajoa! Soldadu etorri nintzanean, alkarri musu bana emanda agurtu giñan, eta an gel-ditu uken negarrez, «ikusi arte» esanaz.

Nik esaten nien:

–Jaungoikoak nai duana izan dedilla. Bizirik etxera etortzeko modua egin dezagula beintzat, komeni bada.

Frentean ere izan nituan lagun jatorrak, bañan geienean erdeldunekin ibiltzen nintzan. Gure eskuadrán ere ni bakarrik nintzan euskalduna: napar erdaldunak, kazereñoak, gallegoak eta orrelakoak nituan.

Kuarteleko lagun geienak beste konpañietara tokatu ziran, eta noizik bein alkarri ikusten genduan, bañan gutxitan; eta, ikusten giñanean, alkarri esaten genion:

–Oraindik ere, Jaungoikoari eskerrak, bizi gaituk, mutillak!

–Bai; illak ere badituk makiña bat. Guk beintzat bizirik etxera joateko modua izango bagendu...

–Etzekit ba, motell. Beldur nauk. Emen gizonak errez iltzen dituk, eta gerra onek etzeukak bukatzeko itxurarik.

–Zer egingo diagu ba? Aingeru Goardakoak zaitu gaitzala ordu guztietan!

XIV

Nere lagunetako bat Zumaia-ko baserri batekoa zan, mutil jatorra gañera.

Bere pixua larogei bat kilo izango zan, bañan gizarajo xamarra eta lotsatia zan, eta gure konpañiko pesta guztiak onekin egiten ziran. Zerbait umore jarri bear zanean, aren kontura parra egiten zuten.

Gau askotan, berandu xamar baldin bazetorren kuartelera, *petaka* deritzaion deabrukeri bat egiten zioten: bere oieko gañeko maindirea bi doble eginda jartzen zioten; eta, oiean sartzen asten zanean, oñak ezin luzatu eta orduan danak parra egiten zuten.

Iñoiz bere soñeko soldadu-arropak ere gorde izan zizkioten gaubean, bera lo zegoala; eta goizean, diana edo korneta jotzen zutenean jeikitzeke, bere arropak palta, eta

mutilla larri sarjentoa etortzeko beldurrez, edo galtzontzillo utsik konpañi guztiko oiak miatzen. Noizbait arkitzen zituan bere arropa oiek, eta tximista baño azkarrago jantzi eta joaten zan lista pasatzera.

Beste gau batzuetan beste deabrukeri bat egiten zioten: lista edo soka luze bat lotzen zioten bere oiaren ankari, eta pasatzen zuten beste salara, eta, gaubean lo gozo-gozo zegoala, tiratzen zioten sokari eta damba!, lurrera gure zumaiatarra; eta orduan danak saietsetako miña egin arte parrez, eta bera pazientzi guztiarekin berriro oia antolatzen.

Instruzioa ikasten ibili zan gurekin batera, bañan etzion tankerarik ematen nola ibili bear zan ere. Ta baziran gure zumaiatarren antzeko beste mutil xeble batzuk ere. Orrelakoekin kaboa ernegaturik egoten zan. Asten zan esanaz:

—¡Un, dos! ¡Un dos! ¡Hep, aro! ¡Media vuelta, ar!

Ta baziran galdetzen zutenak:

—Zer esan dik orrek?

—Ez al dek entzun buelta erdia emateko, guk bezela?

Eta berriz ere:

–*¡Un dos! ¡Un dos! ¡Hep, aro! ¡De frente, cabeza variación izquierda, ar!*

–Arraiua! Edozeñek entenditzen dik ori!

Zumaiatarrak oñak oso okerrak zituan, eta asko kostatzen zitzaion ibiltzen. Botak ere bereala muturrak okertuta beetikan gora begira, eta ala esaten zion kaboak:

–*¡Cambia el paso tú, vasco antiaéreo, que no sabes ni andar siquiera!*

Geroztik *antiaéreo* esaten zioten askok, eta gizarajoari penaren penaz negar-mal-koak ateratzen zitzaizkan, berekin baitzeukan naiko desgrazi.

Eta alako batean kaboak:

–*!Aaaaaaalto!*

Eta baziran gora begira gelditzen ziranak, aideplanoren bat ote zan pentsaturik. Onelako soldaduak apartatu egiten zituzten, eta *pelotón de los torpes* izenarekin beste kabo batek ederki kostata erakusten zien instruzioa.

Guk esaten genien gure lagun gizarajo abei:

–Zertan ez dezute guk bezela egiten? Gauza erreza dek ba au!

Eta zumaiatarrak esaten zigun:

–Bai; nik ez diat beintzat entenditzen zer esaten duan ere; ta gañera emen zertan gabiltzak aruntz eta onuntz bueltaka? Guk emen egiten degunak ez dik ezertarako serbitzen. Obe genikek geuren etxeetan ba-geunde. Nere gurasoak beintzat antxen ariko dituk lanak ezin egiñik, eta ni emen alper-alperrik bueltaka.

Teorikan ere jarduten giñan egun batzuetan; eta, alferezak zerbait galdetzen zionean, berari begira-begira gelditzen zitzaien, eta orduan ere danak parra egin bear, baita alferezak ere, naiz-eta militarrek gizon seriyoak izan.

Zumaiatar onek nerekin zuen bere konfiantza guztia; neri pena ematen baitzidan gizarajoak, eta nik ez bainuan besteak bezela aren bizkar parrik egiten.

Nik eskola askorik ez nuan, bañan berak batere ez, eta berari egiten zizkioten kartak neri ematen zizkidan irakurtzeko, eta gero neroni esaten zidan eskribitzeko.

Gure konpañiko karteroa etortzen zanean eta bere izena otsegiten zuala entzuten zuanean, karta artu eskuan eta laisterka neregana etortzen zan, ume txiki bat karameloekin etorri oi dan bezela, pozez txoraturik,

eta esaten zidan irakurtzeko berak entzuteko moduan.

Etxetik bere gurasoak egindako karta baldin bazan, esaten zioten nola ari ziran soro-lanetan eta mendian garo biltzen, eta gizon-indar gutxi zeukatela, eta lanak atzera xamar zeudela.

Orduan ala esaten zidan, dana kupiturik bere familiarentzat:

–A! Ni banatxiok ba emen ezer egin gabe! Mesede ederra egingo nirotekek nik nere gurasoai etxean banengo! Gure amak al duan guztia lagunduko zioke aitari, bañan ni an palta! Ala ere, noizbait bizirik joango banintz, utsa ukek!

Eta andregaiaren karta etortzen zitzaionean, orduan izaten ziran komeri politikak! Orduan ere laisterka neregana, esanez:

–Au neure neskiaren kartia izango dek!

Ala, zabaltzen nuan karta ori, eta baita irakurri ere berak entzuteko moduan. Eta antxen egoten zan, aoa xabaldua, arriturik, berari jartzen zizkion gauzak entzuten.

Gero, karta oni ordaña egin bear eta berak etzekien eskribitzen, eta neri esaten zidan:

–Neure neskiari kartia egingo al diok?

Eta nik erantzuten nion:

–Erorrek egin akiok!

Eta pena ederrarekin erantzuten zidan:

–Euk badakik, motel, nik bezin ongi zer jarri bear zaion! Euk egiten dekan bezela ondo zegok!

Ala, egiten nuan al nuan modurik ego-kienean karta orren ordaña, eta berari irakurri ondoren ala esaten zidan:

–Ederki zegok! Eskerrik asko, motel! Ik nola pentsatzen dituk gauza oiek danak? Neure neskia pozez txoratzen jarriko dek, gauza abek entzuten dituanean!

Ala, gero esango dedan bezela, ni gaxotu egin nintzan eta ospitalera eraman niñuten; eta, ni an nengoala, kuarteleko nere lagun guztiak gerrara erten ziran, batzuek Bitori aldera, besteak Bizkai aldera, eta orrela. Eta esan zidaten, gure zumaiatar au beste soldadu batzuekin kamioi batean Madrid aldera zijoala, kamioia amildu eta iztarra autsi zuala. Geroztik ez det aren berririk.

XV

Goardiak ere egiten giñun txandaka *Ciudadela* deritzaion toki batean. Bertan zegoan kartzela bat, eta emen ere goardia egin izan nuan bein baño geiagotan, eta kartzela ontan bazeuden militar agintari gizon ospetsu batzuk preso. Abetako bat jenerala zan.

Preso zeuden gizon abek egunero ateratzen zituzten, banaka-banaka txandan, kartzelak bere inguruan zeukan plaza batera. Emen ibiltzen ziran ordu laurden batean aruntz eta onuntz, eta jeneral ura ere bai, bere txanda zanean.

Ateratzen zanean, beti ekartzen zuan poltxikuan ogi-pusketa bat, eta txoriak ziztuan bere gogozko lagunak, eta abei ogi-apurrak emanaz pasatzen zuan denborarik geiena.

Plaza irikia nola baitzan, onek zeukan jira guztian, zezen-plazaren gisan, itxitura bat arriakin egiña, lurretik oin bete inguru-koa. Gure agintari militarrek esaten ziguten, preso abetako bat ateratzen bazan itxitura ontatik kanpora, azkar esateko iru bider sartzeko barrura; eta, ez baziran sartzen, tiroa tira eta bertan iltzeko. Baziran ateratzen ziranak, eta guk, goardian geundenak, esaten genien:

—*Haga Ud. el favor de entrar al centro!*

Eta azkar sartzen ziran.

Jeneral ura ere ateratzen zan; eta, guk esatean, azkar sartzen zan, eta nik orduan pentsatzen nuan nere modu esanez:

—Ementxen zegok etxe askotan gertatu izan oi dana!

Zenbait etxetan aita semearen agindupean bezela, jeneral agintari ura, gizon ospetsua izan arren, soldaduen mendean baitzegoan. Gauza penagarria benetan!

Eta kartzela ontan gau batez goardian nengoala, gaxotu egin nintzan. Paperak izeneko gaitza izan nuan, eta *Alfonso Carlos* zeritzaion ospitalera eramán niñuten. Ospital ontan zeuden gerran eritutako soldaduak.

Egun batez zerbait festa bazan, eta Donosti-ko Orfeoia eramán zuten, eta ospital ontako monja batek esan zidan, oiean nengoan tokira etorrita:

–¡Hala, soldadito! ¡Levántate, que ha venido el Orfeón Donostiarra! ¡Vamos a escucharle!

Nik min asko artzen nuan eta erantzun nion:

–No puedo, hermana; tengo mucho dolor.

–¡Anímate, muchacho! ¡Levántate, que van a cantar también el «Gernikako arbola»!

Bañan ni, nola ezin nintzan atera oietik, pena ederrarekin gelditu nintzan gure Donosti-ko Orfeoi ori entzun gabe.

Ospitalean ogei bat egun igaro ondoren, sendatu eta medikuak alta eman zidanean, berriro kuartelera joan nintzan, eta nere kinto-lagun danak gerrara ertenak ziran.

Orduantxen etorri berriak ziran 37-ko kintoak, eta abei instruzioa erakusten ibili nintzan kabo bezela. Ia egunero joaten gíñan *La Vuelta del Castillo* deritzaion tokira, eta an jarduten nintzan gazte abei zerbait erakusten.

Gero, kinto abek instruzioa ikasi ta frenterako moduan jarri ziranean, agindua etorri zan konpañi batek joan bear zuala Bitori-ra. Ala, formatuta jarri giñan danok geren fusil, kartutxera, kapotea, manta, plate-ra, kutxarea, kantinflora eta maletarekin. Motxila gero eman ziguten. Kamilleroak ere bai, beren kamillak eta tresnak artuta. Aiek ere ematen zuten tristura ederra! Kapitán Fernández zan gure konpañiko buru gurekin atera zana.

Len esan dedan bezela formatuta geundela, gure lagunetako bati –Goierrri aldekoa zan– telegrama bat etorri zitzaion, esanaz bere ama oso gaizki zegoala, azkenetan bezela, eta joateko azkar etxera. Eta guri esan zigun:

–Zer egin bear dit nik orain?

Guk esan genion:

–Or ziok kapitan del Pino. Joan adi beragana eta esaiok.

Joan zan eta adierazi zion al zuan moduan, eta ala erantzun zion kapitanak, berari bizkarretik elduta:

–Lo siento mucho y te doy un abrazo en nombre de toda esta compañía, pero en el frente se os necesita a todos.

Mutil gizarajoa negar-malkoa zeriola bueltatu zan bere tokira.

Alaxen, elurra galanki ari zuala, mar-txoan 4-ean, atera giñan Pamplona-tik Bito-ri-ra. Trenean danok kantari ta bullan, naiz barrendik triste egon.

Gero aztu ziran kantuak ederki. Frentera joan giñanean, jendea seriyo ikusten zan an. Txorakeriak aztutzen dira ederki, tiroak as-ten diranean.

Neri egokitu zitzaidan batalloiar, *Bata-llón de Montaña Sicilia nº 8, Pamplona* ze-ritzaion, eta batalloi au an zebillen gerran Bitori aldeko mendietan.

Bitoria-n ere kuartel danak soldaduz be-teta zeuden; nunbait ere sartu bear eta *Ali* izeneko eskola aundi bat zegoan kuartel modura jarria, eta an zegoan nere konpañia.

An arkitu nituan nere lagunak, mendian beste konpañiak erreleboa egin eta egun ba-tzuk pasatzen zeudenak, beren anaiak bezin maite zituzten zenbait lagun mendian ilda utzirik.

Ez naiz ongi oroitzen zein tokitan artu nuan karta; bañan, Pamplona-n edo Bito-ri-n, bateonbateg eskribitu zidan Joxe eta Antonio nere anaiak Frantzi-ra joanak izan

bear zutela. Donostia utzi zutenean, Motriku-raño iritxi ziran, eta emen ala esan omen zioten alkarri:

–Guk ez degu gerrarik bear!

Eta bapore batean sartu eta Frantzi-ra joan omen ziran, eta anai Saturninoren etxean egon ziran denbora puxka batean morroi bezela, gero berriz andik Españi-ra etortzeko, gerra bukatu zanean.

Bañan, kartan esaten zidatenez, Kaximiro euskotarrekin Bizkai aldera joana zan.

Arrezkeroztik, beti kezka orrekin ibili nintzan nere gerra-denbora guztian: ea nere anai ori nunbait arkitzen ote nuan ilda, erituta edo prisionero eginda.

XVI

Bitori-n egun batzuk pasa ta ondorenean, gure batalloi onek izan zituan *bajak* berriro osatu eta orduantxen erten nintzan batalloi ontan, laugarren konpañian, nere lagunekin lenengo aldiz frentera, Billarreal inguruko mendietara.

Baziran amabost edo amasei autobus, soldaduak mendira eramatera etorri ziranak, Danak beteta abiatu ziranean, ematen zuan biotzak bi parti egin bear zuala, Bitori-ko kaleetako tristura ikusita. Leio danetan zegoan jendea autobus abei begira. Geienak emakumeak eta aurrak ziran, eta danak negarrez ikusten nituan, «¡*Pobres muchachos!*» esanez. Eta orrelaxen agurtu giñuz-

ten pañueluarekin emakume biotzbera aiek, negar samin galanki egiñez.

Esan bezela, Billarreal aldeko mendieta-
ra eramán giñuzten; eta, mendi alde aietan
genbiltzala, tokatu zan Aste Santua ere.

Oroitzen naiz Ostiral Santu egunez nola
gure agintariak esan ziguten egun artan fu-
sillak bera begira ibiltzeko. Ala ibili giñun
egun guztian, eta ez genduan tiro bat baka-
rrik ere iñun entzun.

Eta, uste detanez, Pazko-egunean, men-
di aietako batean bildu giñan batalloi osoa
noski, eta gure agintariak esan ziguten:

*—Hoy se va a celebrar aquí misa de
campaña y a ver si la oímos todos con de-
voción.*

Mendi-gallur inguruan jarri zuten oso
ederki aldare santua, eta an agertu zan apai-
za, gure batalloiko kapellaua, eta eman zuan
meza santua.

Etzegoan esan bearrik debozioz entzute-
ko; jendea ixil asko egon zan an, bakoitzak
bere otoitzak egiñez. Etzan entzuten ez-
tul txiki bat ere meza-denbora guztian.

Neroni ere gogoz jardun nintzan otoi-
tzean, gerrate artan Jaungoikoari suerte on
bat eskatuaz, eta baita ere mendian ilda gel-

ditzen ziran gure lagun maite aien animaren alde.

Ura zan edertasuna! Egualdia ere oso ederra zan. Laño bat ere etzan inñun ikusten, eta goiz-goizetik zetorren oso egualdi ederra, eguzkiak ederki berotzen zuala.

Eta mendi-gallurrean ikusirik meza santua ari zala, gure apaiz jauna artzai umil baten moduan, eta gu berriz arkume-talde aundi baten antzera, mendi-egál guztia soldaduz beteta, danok ixil-ixilik otoitzean, momentu artan ez genduan pentsatzen ere gerran genbiltzanik. Ura zan ango ixiltasuna, pakea eta zoriona! Uraxen izandu zan bizitzea segundo batzuetan zeruan eta ordu askoan inpernuan.

XVII

Gu joan baño lenago, Billarreal-ko errian eta bere inguruko mendietan burruka-aldi aundiak izan ziran. Gero pasatu zuten denbora-puska bat ixiltasunean, tirorik egin gabe naiz alde batetik eta naiz bestetik.

Bañan udaberri aldera ekin zioten gu-reak, berriro sua piztuta. Goizean asi eta egun guztian iraun zuan erasoak. Tiroteo beldurgarri baten otsa besterik etzan entzuten. Ango kañoi, mortero, ametralladora, mosketoi, fusil, tanke, automobil blindatu, esku-bonba eta abiazio!

Gu gelditu giñan Billarreal-ko inguruko mendi-txoko batean. Jarri ziran gure ondoan errenkadan *7 y medio*-ko zazpi edo zortzi kañoi. Agintariak agindua eman zuanean, goizeko amarrak aldean, asi ziran abek tiro-

ka Albertia inguruko mendietara, bazter guztiak puskatzen.

Gu, infanteriko soldaduak, geldirik egon giñan aiek jardun ziran arte.

Kañoi bakoitzak sei bat artillero izaten zituan: bat tiratzeko; tiro bakoitzean kañoia atzera etortzen zan eta ura aurreratzeko bi soldadu kurpilla banatan; tiroa tiratzean kañoiari trapua pasatzeko, beste soldadu bat; eta granadak batek pillatik artu eta beste bati ematen, eta onek kañoiari sartu.

Lan abek danak oso segundo gutxian egiten zituzten, eta orrelaxen jardun ziran denbora-puska batean.

Abek ixildu ziranean, agintariak agindu zigun infanteriko soldaduai, inguru artako mendietara zabaldu bear genduala eta, bazterrak ondo miatuaz, Albertia gañera igo bear zala.

Guri mendiaren beeko egal aldetik tokatu zitzaigun pasatzea Billarreal aldera. Beste batalloi bat izan zan Albertia gallurrera igo zana. Batalloi ontako soldaduak esan zuteenez, an arkitu omen zuten etxe-moduko txabola aundi bat, eta bere barrenean egosten zeuden garbantzuak, kañonazoak jo ta aidean boteak omen zeuden.

Bai omen zegoan bertan neskatxa gazte bat ilda, eta beste bat berriz kañonazoak iztarra moztuta, bañan artean bizirik. Artu ambulantziko kotxe batean eta Bitori-ko ospitalera ekarri omen zuten.

Orrelaxen, batere tirorik egin gabe, artu ziran Albertia eta bere inguruko beste mendi asko.

Billarreal-ko frente ontan burruka gogorak izan ziran alde batetik eta bestetik gu ara eldu baño len, eta gizon asko galdu zan, nola illak ala zaurituak.

Egunez ez omen zan izaten trintxeratik ateratzerik. Ezta pentsatu ere! Kontrarioak gertu xamar izaten baitziran, eta ikusten zuten guztia tira ta bota egiten zuten. Gaubean ibili bear izaten zan.

Erreleboa egiteko ere, ixil-ixilik, batere itzik egin gabe eta al zan anka-soñurik gutxiena ateratzen zala ibili bear omen zan. Etzan izaten argia piztutzeko baimenik; ezta zigarroa erretzeko ere.

Noizbait bukatu zan frente ontako sua, eta gureak Bizkai aldera jarraitu zuten. Gure konpañia, ordea, Billarreal-en gelditu zan.

Inguru artan bazegoan lan-puska bat lur gañean denbora luzean zeuden gizon-pillak

lur azpira sartzen. Danak gure kontrarioeta-koak ziran.

Geienak trintxera moduko pendiza edo lubaki luze baten txokonean zeuden. Bañan andik kanpora ere baziran, eta larrean ere bazeuden an da emen tarteka naikoak.

Ematen zuan fusillakin edo ametralladorakin jo ta boteak zirala; ez baitzeuden puskatuak, oso-osorik baizik.

Gero agintariak esan ziguten gorputz abei danai lurra eman bear zitzaie-la, ta an asi giñan al genduan modurik onenean ildako abek estaltzen. Beren azpiko aldean egi-ten genduan zulo bat, eta aitzurrarekin eldu eta buelta ematen genioten, eta gero lur pixka batekin doi-doi estali.

Baziran beren oñak ondo tapatu gabe bistan gelditzen zitzaizkiotenak ere; ainbeste ta ainbeste izanik ez baitzegoan danak ondo tapatzeko denborarik, guk ere aurrera Bizkai aldera jarraitu bear genduan eta.

Egia esan, lantegi nazkagarria zan benetan ura. Egun asko ziran gizon aiek lurrean ilda zeudela, eta usai gaiztoa botatzen zuten, batez ere beren ondoan zulo-puxka bat egin eta aitzurrarekin buelta ematean.

Egunero txandan jarduten giñan lan on-

tan. Bañan baziran gure lagunetan etxe oneko mutillak, diruz ondo arkitzen ziranak; eta abek, ildakoai lur emateko beren txanda etortzen zitzaiotenean, dirua ematen zuten lan ontan ez jarduteagatik.

Guk ez genduan dirurik izaten, eta antxen jardun giñan makiña bat egunetan ildako danai lurra eman arte.

Lan artan ari giñala, makiña bati begiratu nion ea nere anaia ote zan. Gertatzen giñan leku guztietan egiten nuan ori. Gure kontrarioren bat ikusten banuan ilda lurrean zegoala, joaten nintzan bere ondora, nere modu esanaz:

–Orretzek gure Kaximiroren antza badik! Bera ote dek?

Eta auspez baldin bazegoan, eldu eta buelta ematen nion; eta ikusirik bera etzala, beste batengana joaten nintzan, eta nere modu esaten nuan:

–Au ere ez dek ba!

Orrelaxen, makiña bat ildakori buelta eman nien. Gero jakin nuanez, gure anaia ere orrelaxen ibili omen zan, pentsaturik gu ere soldadu izango giñala noski beste aldetik.

Nere lagunak galdetzen zidaten:

–Bañan zer ari aiz orrela?

Eta nik erantzuten nien:

–Nik badiat anai bat euskotar oiekin dabilena, eta begirutzen diat ea ilda dauden oietakoren bat ote dan. Ez diat beintzat oraindik arkitu. Jaungoikoak ez dezala nai, bañan ez ukek arritzekoa izango olakorik gertatuko balitz ere, gu gabiltzan bezela gerra bizian ibilita. Auxen izango ukek munduan izan leiken gauzarik tristeena: sekulan ezer izan ez degun anaiak alkarri tiroka bat-tak bestea iltzea!

Gero, gure konpañi onek ere, erri ontako lanak egin ziranean, Bizkai aldera jarraitu zuan.

XVIII

Uste det andik Otxandiano-ra joan giñala. Emen sartu giñanean, tristura ematen zuan. Bazirudian erri onek etzuala bere bizi-lagunik. Bakardadean bezela arkitzen zan, oso jende gutxirekin beintzat. Nunbait bertako bizi-lagun geienak Bilbao aldera joanak ziran.

Erri polita da, eta aundi xamarra gañera. Mendi aundi batzuen beeko babesean dago.

Bere kale batzuk puskatuta zeuzkan, noizbait aideplanoak edo artilleriak botatako bonbaren batzuekin. Etxe batzuk ere bazeuden erdi erorita; abek ere bonbakin noski.

Bertan pasa giñun iru edo lau egun, eta an ibili giñan baztarrak ikusten.

Gogoan daukat oraindik erri ontan sartu eta lenengo zer egin nuan. Denda koxkor

bat zabalik zegoala ikusi nuanean, bertan sartu nintzan. Neskaxa gazte bat zan mostadorez barrendik zegoana, eta berari esan nion:

–Jostorratza eta aria bai al dituzu?

Eta arek erantzun zidan:

–*No le entiendo.*

–*¡Ah! ¿No entiende usted el vasco? Pues le pregunto a ver si tiene aguja e hilo.*

–*¡Ah, sí! En seguida le daré. Tenga.*

–*¿Cuánto vale?*

–*Nada; a los soldados no cobramos.*

–*Bueno, muchas gracias.*

Ala, artu nituan jostorratza eta aria poltxikuan, eta lenengo nere lagunekin erri guztia ikusi genduan, eta gero eleizako torrera igo. An badago balkoi moduko toki bat, eta ara igo eta an egon giñan inguru aietako mendietara begira, «Gu arako mendi aietan barrena ibili gaituk» alkarri esanaz.

Zaku ondar asko zegoan balkoi ontan, kontrarioak jarriak, beroien atzetik inguruko mendietara tiroka aritzeko.

Andik beera jetxi giñanean, nere lagunai ezer esan gabe, berriro torrera igo nintzan bakar-bakarrik; soñean neuzkan soldadu-

-galtzak puskatuta baineuzkan goitik asi ta beeraño. Bonbatxo urdin zar batzuk danen gañetik jantzi eta aiekin tapatzen nituan azpiko kontrabandoak. Eta antxen jardun nintzan arratsalde guztian, pazientzi ederrean nere galtza oiek josten.

Ibillera txar asko egiten baigenduan mendian, korrika gora ta beera, erori eta altxa; eta arroparik gogorrenak ere puskatu egiten ziran an.

Gero, illunabarrean, nere lagunak arriturik galdetu zidaten:

–Nun ibili aiz, motel? Arratsalde guztian ez aiz azaldu ere!

–Or jardun nauk, torre ortara igota, galtzak konpontzen, danak puskatuta neuzkaken ta.

–Ja, ja, ja!... Txukun asko konponduak izango dituk!

–Etziok ajolarik! Len bezela ez dek aizerik sartzen beintzat orain. Edan dezagun baxo-erdi bana.

Gero tabernan ere par-puxka bat egin genduan nere galtza oien kontura, eta gero apaltzera.

Orrelaxen, berriz ere etorri zan aurrera segitzeko agindua, eta Urkiola-ra eraman

giñuzten. Emendik kontrarioak aldegin berriak ziran inguruko mendietara, eta emen egon giñan egun batzuetan.

Negar egiteko gogoia ematen zuan, ango gauzak ikusita: etxe danak beren atea eta leioak zabalik zituztela, eta arrenbeste balio zuten mueble, arropa, ontzi eta nik al dakit zenbat gauza, zilipurdika lurrera botatzen.

Eleizak ere bazeukan kañonazo bat alde batetik emana, eta gure konpañiko mandazaiak eleiz ontan sartzen zituzten mandoarekin pentsuak eta beren apareju eta tresnak.

Eleiz ontako santu danak bertan zeuden, San Antonio erdi-erdian zala; eta an jarduten giñan ni eta nere lagun asko santu abei otoitz egiten, gerra triste artan suerte on bat izan dezagun. Batez ere San Antoniori eskatzen genion bere laguntza.

Urkiola-n geundela, etortzen ziran emezortzi aideplano bonbardeoak, guretakoak; irunaka jartzen ziran ere inguru aietako mendi-muturrak jartzen zituzten patata egiteko moduan gorrituta. An izaten ziran soñuak, keak eta autsak!

Eta egazti aundi aiek, beren ziriña an botata, joaten ziran berriz Bitori-ra, berriz

ere kargatu eta beste mendi batzuetan beren ziriña botatzera.

Beste *caza*-ko aideplano batzuek ere etortzen ziran, eta abek ia mendia jotzeraño jetxi ta beren ametralladorakin ebakitzen zizutzen, oker-oker eginda, trintxera-zuloak ederki.

Gu bitartean begira, eta auxen esaten nuan nere artean:

–Or ez dek kristaurik bizirik geldituko, tamaña ortaraño mendia puskatuta; eta, gure Kaximiro gizarajoa or baldin bada, ez dik ederki ibili bear!

XIX

Arratsalde batez esan ziguten gure agintariak, traste guztiak artu ta abiatu bear genduala. Ez dakit zein menditan geunden orduan. Etziguten esan nora joan bear genduan, bañan Gorbea-txiki izan zan gu joan giñan tokia.

Arratsalde geienean joan da joan ibili giñan. Aizea, kazkabarra eta euria galanki ari zuan, eta ederki busti eta nekatu giñan. Gaubean, amarrak alde ortan iritxi giñan, ezer ikusten ez genduala; illuna baitzegoan gogotik.

Gorbea-txiki-n zegoan *Navas* izeneko batallói bateko konpañi bat, eta berari erreleboa egitera igo giñan gu. Mendi onen gallurrera iritxi giñanean, *Navas* konpañiko soldaduak larri zeuden, eta aien agintariak

ere beldurtu ziran, gu nabaitu giñuztenean, ez baitzekiten zein giñan, Bereala otsegin zigun *Navas*-ko kapitanak:

–*!Alto! ¿Quién vive?*

Eta gureak:

–*¡España!*

Eta arek:

–*¿Qué consigna?*

Gureak esan zion bere consigna, eta orduan bildu ziran bi agintariak alkarrengana, linterna batekin beren arpegiak ikusten ziztuztela. Eta ala esan zion *Navas*-ko kapitanak:

–*Pues no sabía si erais vosotros o eran los rojos, pues éste es un sitio muy peligroso y no se puede uno fiar.*

Orduan esan zigun gure kapitanak:

–*Subid, muchachos, que son de los nuestros.*

Alaxen igo giñan gora, eta an etzegoan txabolik eta ezer ere. *Navas*-ko soldaduak, batzuk trintxeretan goardian eta beste batzuk txoko batean su pixka bat egin eta aren bueltan zeuden, txandan bizkarrak berotzen.

Guri esan ziguten urrengo egunean goi-

zean egingo zala erreleboa, eta gau guztian antxen egon giñan, Navas-ko soldaduen ondoan, euritan, otzak, logaleak eta batere lorik egin gabe, estalpe bat ere etzegoalako, eta goseak, zer janik ez gendualako.

Noizbait iritxi zan urrengo goiza. Goizeko zazpirak alde ortan egin zan erreleboa. Gu trintxeretara eta beste konpañi ura beera jetxi zan, berriz guri laguntzera azkar igo bear izan zuan bañan.

Gorbea-txiki inguru au toki arlote xamarran zan; arkaitza, otea eta arbola kaxkar batzuk besterik etzan ageri inguru artan guztian.

Mendi ontan bazeuden trintxera-legera egindako lubaki txiki batzuk, eta aietan jartzeko agindu ziguten gure agintariak. Trintxera aietan ura zegoan, bañan, nai ez genduala ere, lo artzen genduan; lo premi aundia baigenduan. Gañera, ez gendakigun kontrarioak ain gertu zeudenik.

Goizeko zazpi t'erdia inguru ortan, gure eskuadrako kaboak or ikusten du sekulako jende-pilla zetorrela Gorbea-aundi izeneko menditik beera Gorbea-txiki aldera, gu geunden tokira, mendi guztia betean, oju eta deadarka. Danak, edo geienak beintzat, as-

turianoak izan bear zuten, gero berak adierazi zuten bezela.

Ixilik etorri izan baziran, gu danok prisionero egingo giñuzten noski, bañan guri mesede aundia egin ziguten bullan etortzearekin; berak adierazi baitziguten nola zetozten. Nik entzun izan dedanez –ez det beiñere edan eta–, gerra-denboran izaten omen da *àsaltaparapetos* izeneko patarra, eta nunbait artatik ondo xamar probatuta zetozten, sumatzen zituzten maldeziorik aundienak bo-teaz. Tiroka asi baño lenago, entzuten genduan nola esaten ziguten:

–¡Viva Asturias! ¡Marchaos de ahí, hijos de!

Gero batak besteari esaten zioten:

–¡Hala, valientes! ¡Animo, muchachos! ¡Vamos a por ellos, que son pocos y los liquidamos en seguida!

Eta danak korrika guregana.

Gure kabo arek azkar joan da otsegin zien agintariai, esanez ea zer jende zan an goitik beera zetorrena.

Agintariak bereala agindu zion, esanez aiek gure kontrarioak zirala eta segituan aste-ko tiroka.

Alaxen asi giñan danok, eta sekulako ti-

ro-soñua sortu genduan. Goizean zazpi t'erdia aldean asi eta eguerdiko amaika t'erdia arte iraun zuan orrek, bi alderdietatik jendea galanki ilda.

Gu tiroka asi giñanean, gure agintariak bereala mutil batekin abixua bialdu zion *Navas*-ko konpañiari, segituan igotzeko gora, artean gertu xamar baitziran, eta bereala igo ziran. Eskerrak orri.

Burruka au asi eta bereala, il ziran lau edo bost mutil gure lagunak, euskaldunak. Geiago ere ilko ziran noski, nik ez banioten esan pare artan ez jartzeko.

Plateraren moduko arkaitz zabal bat zan, eta aren atzean jartzen ziran, burua bakarrik agiri zutela; ziplanean jotzen zituan balak begiondo inguruan, eta «ai!» bat esan gabe ilda gelditzen ziran. Bat bueltaka lurrera erori eta segituan beste bat jartzen zan aren tokian, eta ura ere berdin.

Nik, ikusirik nere burua larri eta nere lagun maiteak iltzen, ara zetoztenai esaten nien:

–Mutillak, etzaitezte jarri or! Ez al dezute ikusten zer gertatzen dan? Ori toki txarra dek!

Eta andik aurrera etzan iñor jarri an.

Beste askoren artean ikusi genduan gure trintxera-inguruan nola zetorren gizon bat galanta, fusillik gabe, esku-bonbak eta ez-pata aundi bat bere eskuetan zituala. Arek bazirudian danok jan bear giñula, bañan beste asko bezela an gelditu zan ura ere oñak oztuta.

Goizean zortziak aldean laño izugarria sortu zan inguru artan, eta etzan ia ezer ikusten. Laño au oso ongi etorri zan kontra-rioztat; bertaraño etorri arte ez baigiñun guk ikusten.

Orduan il eta eritu asko egin zizkiguten: gure kaboa an gelditu zan trintxeran ilda; kapitana eritu zuten; tenientea eta bi alferez ere bai.

Gure kontrarioak etziran gelditu gure trintxeran sartu ziran arte. Trintxera ori lu-zea zan, mendi guztia bueltan artzen zuana, eta alderdi batetik sartu ziran zazpi edo zor-tzi kontrario, eta gure soldadu-lagun batzuk utzi egin bear izan zuten trintxera ori, muni-zioak aitu zitzaizkatelako. Beste batzuk, be-rriz, gure agintari geienak nola eritu baitzi-ran, beren tokia uzten asi ziran.

Bañan *Navas*-ko konpañia orduan iritxi zan, eta aren agintariak pistolarekin danak

beartu zituzten bakoitzak bere tokia zaitzera. *Navas*-koak etorri izan ez balira, kontrarioak egingo ziran Gorbea-txikia-ren jabe.

Orduan aguro aldegin bear izan zuten gure trintxeran sartu ziran kontrarioak. Itzuli abiatu ziranean, geienak il egin ziran.

Burruka au txoil bukatu baño lentxeago, an ikusten genduan berrogei ta amar bat urteko gizon bat, gure kontrarioa, erituta zegoala gure trintxeraren aurrean, eta *Navas*-ko agintariak esan ziguten:

—¡A ver: ese hombre que está ahí herido traedlo para aquí!

Artu eta ekarri genduan, eta an utzi genduan lurrean luze-luze. Penagarria zegoan gizarajoa. Nunbait zauri txarra zuan eta ezin illik zegoan. Bere eskuekin puskatzen zituan soñean zeuzkan arropak. Kazkabarrak eta euriak jotzen zuan arpegian, bañan ala ere lurruna botatzen zuan, eriotz-larritasunak ematen zion berotasunarekin. Gero, eraso bukatu zanean, Bitori-ra eramán zuten.

Amaikak aldean asi zuan lañoa kentzen, eta bizirik gelditu ziran gure kontrarioak orduan abiatu ziran atzeraka, berriz ere lenago

etorri ziran tokira, Gorbea-aundi-ra, eta amaika t'erdiak aldean ixildu zan tirotea.

Bañan artean ere gu ez geunden lasai, pentsaturik kontrarioen bat egongo zala baztarren batean gordeta. Eta alaxen zan.

Gure soldadu gallego bat eta ni antxen geunden ixil-ixilik trintxeran, eta gu geunden tokitik berrogei bat metrora, arkaitz baten atzean gordeta, an zeuden iru kontrario, bat fusil-ametralladorekin eta beste biak fusillakin ederki armatuta.

Ez aiek eta ez gu, ezin giñan geunden tokitik atera, eta antxen jokatu bear izan genduan gure bizia, aiek edo gu erten nagusi.

Gizon koxkorren fama dute gallegoak, bañan ura oso balientea zan. Eskerrak ari; bestela ez dakit zer egin bear genduan. Ni beintzat, bata besteari tiroka ari giñala, fusilla enkaskillatu ta tiroa tiratzen etzuala gelditu nintzan. Andikan aurrera nere lagun gallegoak bakarrik tiratzen zuan gure aldetik.

Bañan ori baño okerragoa zan muni-zioak aitu zirala, eta artean iru kontrario oiek bizirik eta guri tiroa tiratzen. Bagendakigun lenago, presaka ari giñala, kartutxo

batzuk eskuetatik erori eta gure trintxeran zegoan ura eta lokatz tartean bazirala, eta gallegoak esaten zidan:

—¡Hala, Sebastián! Ya sabes que entre el barro hay algunos cartuchos. A ver si encuentras algunos; que, si no, aquí tendremos que morir. Nos tenemos que defender sea como sea, que esos cab..... no se marchan de ahí.

Nik, lokatzetan billatzen nituan kartu-txoak nere galtzetan garbi-garbi egin eta ematen nizkan, esanez:

—¡Tira con cuidado, Antonio, que quedan pocos cartuchos ya!

Eta alaxen il zituan irurak: lenbizikoa bistan erori zan; beste bat joan zan ari eltze-ra, eta orduan berari tira eta bota zuan, eta gero irugarrena ere noizbait il zuan.

Gero joan giñan gizon aiek ikustera, eta an zeuden irurak ilda. Bat agintaria zan, tenientea edo zerbait orrelako. Arek zeukan buruko kaskoa berri-berria, izugarri ederra. Rusoa izan bear zuan. Odolez pixka bat zikinduta zegoan, eta urez garbitu eta andikan aurrera kasko ura neronek ibilli nuan, eritu niñuten arte.

Orduan bukatu zan egun artako tirotea.

Gure agintariak agindu ziguten begiratzeko ondo inguru artan danean eta beeko mendizokoetan barrena, ea kontrarioen bat gordeta zegoan edo ilda zeuden aien tartean bizirik bai ote zegoan.

Laister asko joan nintzan ni, ea gure Kaximiro an ikusten ote nuan, eta makiña bat ildakori eldu eta buelta eman nion, bera zala irudituta. An ilda arkitu ez nuanean, berriz ere nere modu auxen esan nuan:

–Emen ere ez dek ba! Nun ote dabil gizarajoa?

Jende asko ta asko zegoan ilda nun-nai lurean, eta aben tartean ia illean zeuden eritu asko ere bai. Eritu abek artu eta trinxeretara eramaten giñun, eta gero Bitori-ra ospitalera.

Baziran eritu bat baño geiago, «*¡Dadme un tiro! ¡Dadme un tiro!*» tiro bat emateko deadarka esaten zutenak. Gauza penagarria benetan!

Urrengo egunean, gaueko amabiak aldean, eraso ziguten berriz ere. Denborapuxka batean jardun giñan tiroka, eta gero ixildu egin giñan.

Urrengo goizean, eguna argitu zuanean, begiratu genduan kontrario asko ote zegoan

ilda; bañan etzegoan bakar batzuk besterik, eta gure aldetik etzan iñor ere il edo eritu.

Navas-ko konpañia eta gure konpañitik il da eritu gabe gelditu giñanak, danak an egon giñan alkarrekin bost edo sei egunean.

Gorbea-aundi-ra begiratu eta ikusten giñun kontrarioak nola zebiltzan beren trinxera-gañetan aruntz eta onuntz.

Ametralladoretan zeuden gure soldaduak, agintarien agindua zuten illunabarrero ametralladorak probatzeko, tiro batzuk egin da; eta asten ziranean *ta-ta-ta-ta-ta!*, an ikusten giñun kontrarioak korrika. Izaten ziran baldearekin ur billa zijoaztenak ere, eta laister jira ta sartzen ziran beren txabola-zuloetan.

Gero *Navas* bertan gelditu zan, eta gu beera jetxi giñan beste mendiren batera.

XX

Gero Dima-ko errira bialdu giñuzten. Lendik gureak artuta zeukaten erri au, eta emen beste konpañi bat eta gurea gelditu giñan egun batzuetan.

Dima erri koxkor txiki bat da, mendi batzuen beeko babes goxoan dagoana. Naiz bere ingurua menditsua izan, erria bera toki alaiean egiña dago. Baditu bere inguruan zabal-toki ederrak, arta-soro eta belaze-leku onak, eta baserri politak ere bai.

Maiatzaren asieran iritxi giñan gu erri ontara, eta ain zuzen urteko festak maiatze-ko Santa Kruzetan izaten dira erri ontan. Pentsatu genduan festa onak egin bear zira-la, ta bai ederki antolatu ere.

Erri ontara etorri giñan bi konpañiak, gure batalloiko lenengoa ta laugarrena giñan; eta gure agintariak pentsatu zuten, festak garrantzi geiago izan zezaten, konpañi bateko atletak jarri bear zirala beste konpañikoen kontra. Gure konpañian gipuzkoarrak asko giñan, eta beste konpañian berriz naparrak ziran asko.

Zortzi bat egunean iraun zuten festak, eta izan genduan zer ikusia franko: aizkolari, arri-jasotzalle, pelotari, futbolista, esku-soñu-jole, pianista, dantzari, kantore, bertsolari, korrikalari, asto-karrera eta baita ere gizonak zakuan sartu ta korrika. Apustu geienetan gipuzkoarrak atera ziran nagusi.

Gaubean iñoiz egiten dan amets gozo bat bezela iruditu zitzaizkidan erri artan pasa giñun egunak. Lentxeago mendian genbiltzan kañonazo eta tiro tartean, lurra ildako gizonez estalirik, bazter guztietan odollezko errekek egiñik, eta mutil asko ta asko zaurituak, miñaren miñez antsika eta negarrez, urruti arkitzen zan beren amari oska; erriak, baserriak, mendiak eta bazter guztiak sutan erretzen eta kixkaltzen. Ain erri paketsu eta atsegin batean sartuta, eta gañera bertan antolatu zituzten festak ain paketsu

eta alaiak ikusita, bazirudian inpernutik aterra eta zeruan sartu giñala.

Mundu ontan ikusten dira gauza xelebreak, eta antxen ere ikusi giñun apustu politak.

Baserri batetik ekarri zuten asto bat, eta arekin egin ziran egundoko festak. Asto-karrera jokatu bear zala eta bi konpañietako soldaduak bata bestearen kontra jokatu zuten. Kilometro bateko bidea neurtu zuten. Jarri zan konpañi bateko soldadu bat asto gañean, eta, agintariak beren erlojuak eskuetan zituztela, txalo jo zuan sarjento batek, eta korri, astoari «arre! arre!» esanaz.

Onek joan da etorri egin zuanean, gero beste soldadua. Lenengo joan-etorria gipuzkoarrak egin zuan, eta errez irabazi gañera; bigarren buelta egin zuanerako astoa oso nekatua baitzan.

Gero eun bat metroko bidea neurtu zuten, eta erabaki zan astoaren gañean zijoa-nak atzera begira joan bear zuala. Ura zan polita! Astoa batera ta bestera, eta asto gañean zijoana larri. Soka bat bazuan muturretik lotuta, atzera tiran soldaduak bere eskutik zeukana, eta arekin zuzentzen zuan okertzen zanean.

Karrera ontan naparrak jokatu zuan len-
dabizi. Egiñalak egin zituan makillarekin
astoa joka aguro joan zedin, eta azkar egin
zuan joan-etorria.

Gero gipuzkoarrak jokatu zuan. Onek
ere astoari jotzen zion gogotik, bañan astoa
len baño mantxoago, nekatuta baitzegoan.
Ala, ikusirik apustua galduko zuala, eskuan
zeukan makilla isatsaren azpitik sartzen asi
zan, eta orduan asto gaxoa tximista baño
azkarrago joan zan, eta berriz ere gipuzkoa-
rrak irabazi zuan.

Saietsetako miña egiteraño egon giñan
gu parrez aiei begira.

Beste apustu au ere polita izan zan. Za-
ku banetan sartu, gerrian lotu, eta bi kon-
pañietako soldadu bi, ogei bat metroko bi-
dean joan da etorri zeñek lenago egin. Etzu-
ten bereala bukatu beren lana. Saltoka-salto-
ka joaten ziran eta maiz erortzen baitziran
lurrera. Gipuzkoarra lertzeko zorian jartzen
zan parrez, eta naparrak irabazi zuan.

Arri-jasotzalleak ere baziran naparrak
eta gipuzkoarrak. Gipuzkoarra Azkoiti-ko
Mendizabal izan zan, mutil jator askoa, ze-
zenak ainbat indar zuana, bañan oso umilla.

Pamplona-n kuartelean egon giñanean

ere, bera eta beste erdeldun bat ziran gure arrantxeroak, eta guk joan bear izaten genduan iru edo lau soldadu egunero txandan abei patatak txuritzen laguntzera, eta ez giñan gaizki izaten. Mendizabal onek beti ematen zigun eguerdian, amaika t'erdiak alde ortan, aragi-xerra bana ogiaren tartean, eta beste baso bana edo bina ardo, eta gustora joaten giñan abei laguntzera.

Orduan ere an ibiltzen zan, almazenean zeuden zaku patatak, zaku arrozak, garbantzuak eta arrapatzen zituan gauza guztiak bizkarrera jasotzen, bi eskuekin, batekin, eta alde guztietara bere indarrak probatzen. Guk esaten genion:

–Ai, Mendizabal! I ederki moldatzen aiz emen naiko aragia janez! Berriz ere jasoko dituk ik errez emengo zakuak!

Eta onela erantzuten zigun:

–Aragia jan gabe ere jasoko dizkiat, bai, nik emengo zaku abek! Au dek sasoia, au!

Eta berriro, *rau!*, eldu ta altxatzen zuan zakua.

Eta arria jasotzen errez nagusitu zan gure Mendizabal. Besteak bi eskuekin bezin errez jasotzen zuan arek esku batekin, naiz arri traketsa izan. Ari begira gustora egoten

nintzan ni. Jaten baño naiago izaten zuan arek arriarekin burrukan ibili.

Aizkora-apustua izan zan gogor xamarr. Gure konpañiko mutilla Bidani-koa zan, Jose Iraola, lenago apustu bat jokatua gerra baño lenago, mutil aundia eta indartsua gañera. Bañan egun batzuk bazeramazkian gaxo ta makal xamar. Berak etzuan atera nai plazara, bañan agintariak esan zioten mese dez ateratzeko, etzegoala beste aizkolaririk eta. Ala, atera zan kolore txuri-txuriarekin.

Nik ez det ikusi iñun an bezela dirua jokatzen. Soldaduak ere poliki, bañan bi konpañietako agintariak, bata bestearen kontra, Tolosa-ko zezen-plazan baserritarrak baño beroago eginda. Bañan danak pakean, anaiak bezela, beste festetara alaitsu eta paketsu jarraituaz.

Jokatzen asi baño lenago, gure batalloko komandante Ollo-k esan zuan, etzala libre aizkolariari laguntzea iñolako moduz; berak bakarrik jardun bear zutela.

Gañerakoan oso gizon jatorra zan komandante Ollo au. Baserritar baten antza ematen nion nik. Bera gizon moztaka zabal bat zan, bota oriak, traje panazkoa, lepoko pañuelua eta bere txapel aundiarekin. Solda-

duakin itzegiteko ere, edozein kabok baño inportantzi gutxiago ematen zion bere bu-ruari.

Bañan jokatzeko asi ziranean, bera zan okerrena. Bereala asi zan makilla batekin ezpalak kentzen naparrari; Olo au bera ere naparra baitzan. Eta botillarekin botatzen zion patarra ere lepotik beera, mesede egi-tearren.

Bidani-koak egin zituan alegiñak, bañan erdi gaxo ta bakar-bakarrik aritu zan, eta oso gutxiz naparrak irabazi zuan.

Bertsolariak ere izan ziran. Polliki xamar kantatzen zutenak baziran. Ez naiz gogoratzen an zer bertso kantatu ziran eta bertsolariak zein erritakoak ziran, bañan badakit gipuzkoarrak zirala. Neroni ere jarduten nintzan zerbait kantatzen, eta umore ederra pasatzen genduan. Baziran bertsolari-tza gustatzen zitzairen napar euskaldunak ere. Ondo xamar kantatu ezkerro beintzat, gauza atsegiña baita saio eder bat entzutea.

Kantoreak zortzi edo amar laguneko taldea egin zuten, eta orfeoi moduan antolatzen zituzten beren kantuak. Kantore-talde au bi konpañietako soldaduak osatzen zuten, eta bai ederki kantatu ere, naiz eleizako

kantuak eta naiz beste edozein ere. Gu beintzat gustora asko egon giñan abei entzuten.

Baziran *solistak* edo bakarka kantatzen zutenak ere, bañan an etzan gure kamillero Orta baño ederragorik.

Mutil bikaña zan, napar erdalduna, laro-gei bat kilotik gora pisatzen zituana, rubiyo antzekoa.

Kanturako gogoa eta abildade aparta zuan. Bere eztarriak organua zirudian. Guk zenbait garaitan izaten genduan pixka bat alaitzeko premia, eta bagenduan aren bearra. Ura kantuan asten zanean, gure biotzak pixka bat xuxperten ziran. Izan ere, alakoa zan ura! Beti arpegi alaiak ikusten genion.

Urrutira ere ezagutzen genduan, kantari ari bazan. Iñoiz, agintariai baimena eskatuta, joan izan zan mendi batetik bestera, beste batalloi batean zebiltzan bere napar lagunetara; eta, andik zetorrenean, nabaitzen genduan ederki. Baita kontrarioak ere nabaituko zuten noski, bere kantu alaiak kantatuaz nola zetorren.

Oso gogozkoak zituan *jota aragonesak*; bañan, bera nola baitzan naparra, *jota navarrak* kantatzen zituan asko. Bein asi ezkerro, bukaerarik etzuan. *Quisiera volverme yedra*,

*Pamplona tiene cadenas, A las orillas del
Arga ta oiek danak kantatzen zituan. Beste
auxe askotan kantatzen zuan:*

*Segadora, segadora,
¡qué aborrecida te ves!
Todo el día en el rastrojo,
agua no puedes beber.*

Dima-ko festetan ere, bere kantore-talde batekin kantatu zuan, bañan aren eztarria besteengandik nabarmena zan.

Ura zan gure penak aztu eta gu alaitzen giñuna, eta orrelako gizonak ez luteke beinere il bear!

Erri ontako jendearekin oso lagun egin giñan guztiok. Izan ere, ain leialak ziran. Berak jan bear zuten ogia, besteri emango zioten. Alakoak danak. Arropak ere emakumeak garbitzen zizkiguten. Danak famili batekoak bagiña bezela bizitu giñan an egon giñan denboran, eta baziran negar egiten zutenak guk andik alde egin genduan.

Erri ontan etxe asko zegoan utsik, eta abetan lo egiten genduan.

Pena gauza batek ematen zidan neri: ez genduala ikusten erri ontan gure kideko mutillik. Nunbait gure kontrarioekin joanak zi-

ran, eta bertan zegoan jendea, umeak, zar xamarrak eta emakumeak ziran.

Festa aietan genbiltzala, beste amets traketak eta beldurgarri bat zetorren nere burura: laister joan bearko genduala, alegia, berriro zerutik inpernura.

Bukatu zan gure deskantsua, eta nere amets maltzur ura egitazko biurtu zan.

XXI

Ez dakit Dima-tik nora eraman giñuzten; bañan, uste dedanez, andik atera eta ibilli-aldi izugarriak egin giñun, kontrarioak atzera eta gu aurrera.

Gogoratzen naiz egun batez ia arratsalde guztian korrika ibili giñala joan da joan, eta tiro askorik egin gabe gañera; bañan tarteka gogor xamar egiten ziguten.

Arboldegi aundi batera iritxi giñan eta emen ortzak erakutsi zizkiguten. Berak arbolen atzetik guri tiroka, eta gu ere beste arbola batzuen atzetik. Gu beti, pixkabanaka, arbola baten paretik bestera aurrera joaten giñan, bañan berak etziran atzera joaten.

Orduan gure agintariak esan ziguten, bada ez bada ere baionetak jartzeko fusillari, alakorik gertatzen bazan baionetaz ari bear-

ko zala ta. Esan bezela, jarri giñun baionetak fusillaren puntan, eta gu ala ikusirik iges egin zuten.

Ala gabiltzala, gure soldadu batzuk eritu zituzten. Bati beintzat eskuko beatz bat moztu zioten tiroz, eta nere artean esan nuan:

—Orrek beintzat zauri ona izan dik. Orain ospitalera joango dek, eta gutxienez beintzat oraingoz bizia salbatu dik!

Gero berriz aiek atzera eta gu aurrera. Alako batean, korrika goazela, mendi-txoko batean arkitu genduan kontrario erdaldun bat, sasi tartean gordeta zegoala. Nunbait munizioak bukatu zitzaizkan, eta bera ere oso nekatuta zegoan; eta, ikusi zuanean ezin zala geiago ibili, bertan gorde zan. Ain zuzen, gañera, gure tenienteak ikusi zuan nola zegoan gordeta, eta esan zion:

—*¿Qué haces ahí, muchacho? ¡Salte de ahí!*

Ala, atera zan sasi tartetik, etorri zan tenientearengana, eta onek esan zion:

—*A ver cómo está ese fusil!*

Eldu zion fusillari eta, ikusirik artean ere bere kañoia bero-bero zegoala, esan zion:

—!Ah, granuja! ¡Cuántos habrás matado?

Eta ura izan zan guk egun artan egin genduan prisionero bakarra.

Orrelaxen kilometro asko pasatu ondoren, mendi batean gogor xamar jarri ziran gure kontrarioak, eta larri giñan danok ere. Tiro asko tiratzen zuten berak, eta gu al genduan lekuan ezkututzen asi giñan. Gure lagun asko trintxera-moduko pendiza baten atzean jarri ziran.

Ni ere an etzanda nengoala, soldadu batek antxen bota zuan bere burua nere oñetara. Zein ote zan eta nere lagun maite bat zan, Domingo Erkizia, Donosti-ko Antigua-ko ballaran dagoan Urrizti baserrikoa. Aspaldian alkar ikusi ez genduanak, antxen besarkatu giñan, bi anai maite besarkatzen diran bezela. Nik esan nion:

—Zer moduz, Domingo?

—Ementxen, motel, larri! Gaur arratsalde guztian korri ta korri gabiltzak ia batere gelditu gabe; eta orain emen, ikusten degunez, gure kontrario abek gogor jarri zaizkiguk, eta emen dituk komeriak!

Gu giñan *Batallón de Montaña Sicilia nº 8*, eta Domingo, berriz, *América 23*, eta

bi batallioietako soldaduak nastuta genbiltzan.

Gero berriz ere gure agintariak ordenatu zituzten beren mutillak, eta mendi artan *América 23* gelditu zan, eta guk eskubi aldera jarraitu genduan.

Egun artan ala genbiltzala, makiña bat aldiz gure anai Kaximiroz oroitu nintzan, nere modu esanaz:

—Gure Kaximiro ere emen ibiliko dek ba nunbait! Au ere marka izango dek! Beti ain alkar maiteak izan gaituk eta orain emen alkarri okerren bat egin bear ote diogu?

Illunarekin batera iritxi giñan baserri zar baten ingurura. Orduantxen aldegiñak ziran gure kontrarioak. Etxe ondoan bazegoan zakar-meta bat, eta orduantxen ari zan ura ere erretzen.

Gure agintariak esan ziguten an gelditu bear genduala gaua pasatzen; zerbait jan eta baserri artan lo egin bear genduala. Jateko ez genduan gogo aundirik, egarri galanta baizik.

Batzuk jarri giñan kanpoan goardian, eta gañontzekoak baserrian lo. Etzegoan oirik eta ezertxo ere; bañan ala ere lurrean etzanda gustora lo egin genduan, fusillaren ga-

ñean burua jarrita. Etzan tapatu bear aundi-rik ere. Kartutxerak min ematen ziguten, ez baigenduan kentzeko agindurik, bañan ala ere lo, batzuk ganbaran, beste batzuk geletan, eta baziran gustora asko ukulluan etzan ziranak ere; ez baitzegoan ganadurik, eta lotarako premia galanta berriz.

Urrengo goizean, bostak aldean, gure agintariak otsegin ziguten, esanaz berriro aurrera jo bear genduala. Joan giñan berriz ere bide-puska batean batere tirorik egin gabe, eta alako batean ikusi genduan beste mendi-egal batean nola zeuden gure kontrarioak, eta agintariak esan ziguten:

–Emen gelditu bear degu.

Eta bertan gelditu zan beste batalloi bat, eta gu an inguruko beste mendi batera joan giñan. Bigarren *linean* jarri giñuzten, lasai-xeago egotearren.

Ala geundela, goiz batean baginjoazen gure tokitik arrantxeriko txabolara kafea artzeko asmoan, eta or ikusten degu aideplano bat urrutira, bañan guregana zetorrela zuzen-zuzen.

Gu berari begira geundela, gure tenienteak begiratu zion katalejuakin eta ezagutu zuan kontrarioena zala. Bereala agindu zi-

gun, «*¡Cuerpo a tierra!*» esanaz, geren bu-ruak botatzeko lurrera.

Erori giñan segituan, eta gu ala ere be-rari begira. Alako batean or ikusten ditugu goitikan bera bonbak zetoztela gure gañera. Zazpi bonba bertan bota zituan, bañan gure gañera etzan erori bat bakarrik ere. Gu baño pixka bat aurreraxeago zegoan arrantxeriko txabola, eta antxen sartu ziran bat edo bi, eta besteak urrutiago.

Eskerrak arrantxeroak ere korrika alde-gin zuala; bestela bertan txikituko zuan. Gu-retzako eginda zeukan kafea, bere ontzi eta guzti aidean joan zan, eta lenago ere bein baño geiagotan egin izan genduan barau, eta goiz artan ere bai. Inguru artako oteak eta larrak egin zuten gosari txikia gure partez, eta gaitz erdi bonba aiek etzutela guretako iñor jo.

Toki artan egun batzuk igaro ta gero, beste mendi batera pasatu giñan. Mendi orren beeko txokoan zabaldegi aundi bat ze-goan, pago-zuaitz ederrez estalita, eta zuaitz aben tartean zeukaten gure artilleroak *15 y medio*-ko kañoi bat, beste mando-mordo aundi bat ere bai, eta soldadu asko.

Kontrarioak etzituzten abek ikusten, ba-

ñan nunbait igerri zioten txoko artan jendea egongo zala, eta morteroakin tira zuten kañonazo bat. Gure kañoiaren ondoan lertu zan, eta zortzi edo bederatzi soldadu kristauaren itxurarik gabe puskatu eta zuaitz gañetara bota zituan.

Guk egin genduan eskapada latza; gu ere txoko artara baginjoazen, eta gu iritxi baño lentxeago gertatu zan ori. Guk entzun genduan kañonazoa, eta bagendakigun antxen bertan sartu zala; eta, gu iritxi giñanean, orduantxen ari ziran ildakoen puskak kamillentan jartzen, zortzi edo bederatzi kamilla errenkadan. Arek ematen zuan tristura!

Guk aurrera segitu genduan mendi-gallurreraño, eta an zegoan beste batalloi bati erreleboa egin genion. Emen beste egun batzuk pasa giñun.

Emen gure kaboarena esango det. Gure eskuadrako lenengo kabo Jose Llorente zan, napar erdalduna, eta au Gorbea-txiki-ko burrukan il zan. Geroztik Alfredo Alegre Cedillo zan gure kabo egiten zuana, kazereñoa bere izatez. Oso mutil fiña zan; eta, gerran genbiltzala, mendi batzuetan izaten giñun txabola koxkor batzuk lotarako, eta gure kabo au ia gauero negarrez egoten zan.

Goizean, esnatzen giñanean, nik esaten nion:

–*¿Qué te pasa, Alfredo, que toda la noche la pasas llorando?*

–*¡Que me acuerdo mucho de mi familia, mi pare, mi mare y mi novia! ¡Estoy deseando marcharme a casa! ¡No sé cómo estará ya mi cortijo!*

Eta gero, ni Pamplona-ko ospitalean erituta nengoala, zerbaitetara joan nintzan gure kuartelera, eta an ikusi nuan gure kabo Alegre ori, sarjento eginda zegoala, ofizialen gelan. An egon giñan izketan eta nik esan nion:

–*¡Hombre! ¿Tú también por aquí, Alfredo?*

Eta erantzun zidan:

–*Sí; he ascendido a sargento y me va gustando cada vez más la vida militar, y aquí estamos.*

Lenago etxera joateko amorratzen zegoan, eta gero bertan *reengantxatu*.

XXII

Gure agintariak esan ziguten bazegoala beste erri bat, Yurre izena zuana, gure kontrarioen mende zegoana, eta uraxen artu bear genduala. Agintariak erabaki zuten gure konpañia zala erri ori artu bear zuana, eta ala erten giñan gu Yurre aldera.

Piñutegi aundi batzuetan barrena ginjoazen. Orta, gure kantore bikain ura, bidean kantari zijoan gizarajoa, eta kapitanak esan zion:

—Oye, Orta: está bien que vayamos de buen humor, y lo mismo que a tus compañeros me encantan también a mí tus canciones; pero por si acaso más vale que vayamos callandito, sin que nos sienta el enemigo.

Eta orrelaxen ixildu zan betiko.

Kapitanarekin gu amabost edo ogei bat euskaldun giñan aurren xamar ginjoazenak. Maiatzaren ogei ta laua zan, eta bero ikaragarria gañera.

Bide erdian bezela, arkitu genduan irurogei ta zortzi edo amar bat urte zituan gizon zar bat, euskaldun bizkaitarra, andikan onera bidez-bide zetorrena.

Kapitanak zenbat eta zer jende zegoan jakin nai zuan, eta asi zitzaion zer edo zer galdetzen. Bañan aitona zar arek etzekian erderaz mintzatzen, eta gure kapitanak ere ez euskeraz, eta ola esan zigun orduan:

—¡A éste no se le entiende nada! ¡A ver si hay algún vasco que pueda hablar con este señor!

Orduan guk galdetu genion:

—Zer degu, aitona? Nora zoaz?

Eta erantzun zigun:

—Onera zuengana! Or ez dago bizitzerik! Or ez dago bizitzerik!

—Zer ba?

—Zer ba? Beste askori bezela, neri ere ostu dizkidate etxean nituan beiak, txalak, olloak eta gauza guztiak! Aspertu naiz jende orrekin bizitzen eta zuengana nator!

Kapitanak esan zigun galdetzeko ea Yurre erri artan jende asko zegoan, eta gizon zar arek erantzun zigun:

—Ez dago iñor erri ortan! Aldegin dute danak, beren kañoi eta gerrarako tresna guztiak artuta, beste mendiaren atzera! Pake ederra utzi dute!

Aitona zar arek ernegatuta bezela erantzuten zuan, bañan ala ere gure kapitanak etzituan sinisten arek esandako gauza guztiak, eta etzuan arrazoiaren paltarik. Guri esan zigun gerra-denboran tranpa asko izaten zala, eta galdetzeko berriro:

—*Hay que preguntarle de nuevo.*

Ala, berriz aitona orri galdetu genion:

—Aizu, aitona: ea egia dan zuk esaten dezuna, or ez dagoala iñor erri ortan.

—Orixe! Etzerate piyatzan? Etzerate piyatzan? Neu joango naz aurretik! Ez bazerate piyatzan nik esandakoakin, eta erri ortara bazoazte, neroni jarriko naz zuen aurretik, eta erakutsi eta lagunduko dizuet!

Kapitanari esan genion, eta arek:

—*¡Muy bien! ¡Que se ponga!*

Etzitzaion gaizki iruditu gizon ori gure aurretik jartzea. Esan zigun orrelaxen joan-

go giñala ederki; gizon arek jakingo zuala ango berri, eta beti ere mesede egingo zigula.

Orrelaxen joan giñan bide guztian: gizon zar ori gu baño amar bat metro aurrerago zala, eta gu fusilla bizkarrean konfiantza osoan.

Bañan baserri bat zegoan errira iritxi baño pixka bat lentxeago. Emen nabaitu genduan eiz-zakur bat zaunkaz ari zala. Ateak eta leioak itxita zeuden, eta nik esan nien nere lagunai:

–Mutillak, siñale txarra dek au! Emen ez dagoala iñor, e? Zakur onen nagusia etxe ontatik joan izan balitz, eiztariak ain maite izaten duan bere txakurra etzuan etxe barruan aztuta utziko!

Erri guzia ixil-ixilik zegoan; eta, errian sartzen asi giñan momentuan, aiton ori, *rau!*, ezkutatu egin zitzaigun erriaren sarrean zegoan etxe batean.

Eta ura ezkutatu zanean, zabaldu ziran erri guztiko leio-zuloak, eta danak fusillakin eta ametralladorakin ikusi genituan.

–Oraintxen egin diagu lan ederra! –esan genduan.

Ekin zioten alde guztietatik gure kontra

tiroka. Balazoak kazkabarra bezela zetozen. Gu danak bistan giñan, eta bakoitzak al zuan tokira ezkutatzen asi giñan.

Maiatzaren bukaera zan eta erri onek bazeukan bere inguruan gari-sail aundi bat, eta gure soldadu-lagun asko eta asko gari-tarte ontara sartu ziran, kontrarioak ez ikustearren.

Bañan abek ederki ikusten zuten gari-sail ura nola ari zan jendez betetzen, eta alako batean asi ziran ametralladorakin tiroka. Gari guztia segarekin bezelaxen moztu zuten, eta antxen gelditu ziran nere lagun asko ilda. Bertan egon bear izan zuten ogei ta bi egunean, ez gure aldekoak eta ez beste-koak artzerik izan etzalako.

Batzuk erri inguruan zabaldu ziran, eta beste batzuk berriz etxe baten atzean gorde giñan. Batzuek esaten zuten:

–Emen gaizki gaudek, eta atera egin bear diagu emendik!

Bañan bein andik atera ezkerro, etzegoan ezeren babesik, dana garbi baitzegoan; eta ateratzen ziran danak, an il edo eritzen ziran. Eta jakiña: aiek ala ikusita, besteak bertan gelditu giñan.

Bañan gure sarjentoa ere an zegoan, eta

ala esan zigun bere pistola aundia erakutsiaz:

–*¡Hala, muchachos! ¡Hay que salir de aquí en seguida a luchar!*

Ala, pentsaturik antxen izango zala nere azken ordua, Jaungoikoari otoitz egiten asi nintzan:

–Jesus, Jesus! Lagun zaiguzu ordu larriontan!

Ori esanaz atera nintzan ni andik. Ikusi nuan etxetik amabost bat metrora nola zegoan aran-arbol zar bat, eta aretxen ipurdian gorde nuan nere burua. Burua maite noski!

Nik tiro bat tira nuan, ez dakit nora; baina oñak nunbait bistan gelditu ziran, eta berealaxen eman zidaten, *tak!*, oin batean. Begira jarri nintzan eta, *tak!*, bestean.

Tiro batekin, nola baitzan *bala explosiva* izenekoa, ezkerreko oñaren erdia puskatu eta zintzilik utzi zidaten; beste tiroarekin eskubiko zankoan ebaki edo zauri luze bat egin zidaten.

Segituan abiatu nintzan ipurdiaren gainean arrastaka-arrastaka eta fusillaren arri-muan, odol-arrasto aundia lurrean egiten nuala.

Ez dakit bitartean zenbat bala sartu zan

nere inguruan. Arropa guztiak lurrez bete zizkidaten beintzat. Milagrua dala dirudi, bañan nunbait Jaungoikoak ez nai eta ez niñuten geiago jo.

Ta deadarra egiten nuan esanaz:

–Ez al dago iñor ni emendik aterako naunik? Ez al dago iñor ni emendik aterako naunik?

Deadarra euskeraz egiten nuan. Orduan ez nintzan oroitzen erdera zanik ere.

Ta kapitanak oju aundi bat egin zien kamilleroai, esanaz:

–*¡A ver: ese muchacho está muy mal y llevadlo ahí arriba!*

Etorri ziran korrika Orta kantorea eta Agorreta zeritzaion beste bat. Artu eta jarri niñuten kamillan. Bañan altxatzen asi zira-nean, aietako bat, Orta, jo zuan bala batek kopetean eta bertan gelditu zan ilda, «ai!» bat ere esan gabe.

Agorreta-k, ori ikusi zuanean, azkar al-degin zuan korrika al zuan tokira, ni bertan utzita.

Neri beldurrik aundiena ematen zidan kontrarioak ari zirala etxeetatik ateratzen, eta pentsatzen nuan abek arrapatzen baniñu-

ten bizia ere kenduko zidatela. Berriro ere deadar egiten nuan:

–Ez al zerate or iñor ni aterako nazute-nik?

Ontan etorri zan korrika sarjento bat, ondarrutarra, mutil aundi bat, eta esan zidan:

–Zer egin ditek, Salaberria?

–Ez naizela gauza ibiltzeko eta emen dirala!

–Nik eramango aut!

Artu niñun bizkarrean eta abiatu zan. Piñutegira iritxi bitartean, atzetik tira ta tira aritu zitzaizkigun, bañan ez giñuzten jo.

Nik odol ixuri aundia neukan nere zaurietatik eta bere arropak nere odolarekin zikindu nizkion; bañan etzan asarretzen, eta berari zor diot bizia.

XXIII

Piñutegi artan arkitu genduan kapellau bat, eta arek egin zidan lendabiziko sendaketa.

Gero, kamillan artu eta goiko tontorrera igotzen asi niñuten. Ala, piñutegi artan beetikin gora ginjoazela, guri laguntzera zetorren beste konpañi bat topatu genduan.

Kontrarioak, ordea, tira zuten kañonazo bat, eta soldadu asko zegoan tokira erori zan granada, eta soldadu asko il zituan; mandoak ere bai. Gizonen puskak arbolen gañetan ikusten ziran, eta beste asko eritu ta karraxika. Ematen zuan azken juizioko eguna zala. Bazter guztiak erretzen ari ziran, eta lurra berriz illez eta erituz estalia.

Gure konpañikoak gutxi izan ziran bizi-

rik geldituak. Geienak il egin ziran, eta bizi-rik gelditu giñanak ere erituta.

Beste konpañi geiago ere etorri ziran gure aldekoak, eta egun guztian tiroka jardun ondoren illunabarrean ixildu omen zan tirotea, eta antxen egon ziran makiña bat egunean ixil-ixilik, kontrarioak errian eta gureak piñutegian. Gero, agintariak erri ori artzea pentsatu zutenean, tiro bat ere egin gabe artu zuten. Ez omen zegoan iñor erri ortan. Danak aldegiñak omen ziran.

Goiko tontorrera iritxi giñan, eta emen zegoan *puesto de sanidad* deritzaiona. Emen zeuden medikuak eta danak.

Mando mordo bat ere bazegoan, eta teniente mediku batek esan zuan gutxieneko iru edo lau ordu bear zirala beeko kamiyora jeixteko, eta mando oietako baten gañean jarri eta jetxiko niñutela. Onelaxen esan zuan:

—*A éste que le bajen en un mulo.*

Ta nik erantzun nion mediku ari:

—*Perdone, mi teniente: todavía quiero vivir. He perdido mucha sangre y si me ponen en un mulo me quedaré sin nada.*

Alegia, barkatzeko mesedez, bañan oraindik bizi egin nai nuala al bazan, eta ez

nintzala mandoaren gañean jarriko; lenago odol asko ixuri nuala, bañan mandoaren gañean jartzen banintzan, *dinbili-danbala* ibiliko zala mandoa, eta gelditzen zitzaizkidan odol pizarrak zaurietatik bereala aterako ziralara, eta neroni batere konturatu gabe ilda geldituko nintzala.

Orduan jarri zizkidaten bi kamillero. Artu niñuten kamillan eta gomarekin oso estu lotu zizkidaten oñak, zauriak baño goraxea-goatik, odolik erten etzedin.

Bañan mendi oietan zear neramatela, aguantatu ezin alako miña ematen zidaten goma aiek. Nik pixka bat askatu edo lasaitu egiten nituan, eta orduan berriro asten zan odola erteten.

Kamilleroak, asarreturik, errietan eman eta lotu egiten zidaten, esanez:

—Goma oiek askatzen badituk, ilda geldituko aiz odol dana galduta!

Min ederra ematen zidaten, bañan ez nuan geiago gomarik ikutu.

Nik ez dakit egun artan bero aundia egiten zualako edo nere zauriak ematen zidaten eriotz-larritasunagatik edo zergatik, bañan nik egarri ikaragarria nuan.

Mendi aietan nun-nai zegoan ur ederra,

eta nik beti nere kamilleroai ura eskatzen nien. Ontzi bat bazuten *kantinflora* izeneko, gerrian zintzilik ibiltzen zutena, eta antxen ematen zidaten. Pozik asko edaten nuan!

Mendi-bide aietan ginjoazela, gure kontrarioak tiratzen zituzten kañonazoak *15 y medio* izeneko kañoiarekin, eta baziran gure buruaren gañetik urruti gabe pasatzen ziran granadak. Alakoetan kamilleroak, *plast!*, lurrera botatzen niñuten nere kamilla eta guzti, eta berak ere gurdi-bidearen txokoan etzaten ziran, granadak jotzeko beldurrez.

Gero, berriz ere artu eta segi egiten zuten, beeko kamiyora iritxi giñan arte.

Emen egon giñan anbulantziko kotxe bat etorri arte. Kamiyo ontan bazegoan soldadu-mordo bat, eta aben artean nere lagun oiartzuar bat, beste konpañi bateko arrantxeroa. Ni ala erituta ikusi niñunean, arriturik galdetu zidan:

–Zer egin ditek, motel?

–Oñak elbarritu zizkidatek eta zutik ezin nauk egon.

Eta gizarajoak, nitzaz urrikaldurik, esan zidan:

–Zerbait jateko gogoia bai al daukak?

Bazeuzkat lukainka, urdai-azpiko, arrautzak, aragia, kafea, koñak eta danetik.

Bañan nik beti gauza bat eskatzen nuan:
ura: Nere erantzuna auxen izan zan:

–Emaidak mesedez ura!

Eta alaxen ekarri zidan botilla batean ur fresko ederra eta gustora asko edan nuan; uraxen bakarra baitzan une artan nere gorputzak eskatzen zuana.

XXIV

Etorri zan noizbait anbulantziko kotxea, eta nere moduko beste bost edo sei eritu sartu eta eraman giñun Bitori-ra. Emen bazegoan *Primer Hospital de Sangre* izenarekin etxe berri aundi bat, berez apaizgaientzat egiña, eta ara eraman giñun.

Maiean operatzeko jarri niñutenean, galdera abek egin zizkidan medikuak:

–Nungoa aiz, gazte?

–Ni Donosti-koa.

–Donosti-koa? Ni ere angoa nauk ba, emen natxiok serbizioz bañan.

Donosti-ko Don Inazio Urbina izena zuan mediku ospetsua zan. Gero galdetu zidan:

–Zer egin ditek mendi alde oietan?

Eta nik erantzun nion:

–Ez dakit ba, jauna, ondo esateko; bañan oñak ditut elbarrituak.

Eta ezkerreko oña, nola baitzegoan puskatu eta zintzilik, berari eskuarekin elduaz galdetzen zidan:

–Eta oni zer egin bear diogu?

–Orri zer egingo dio? Moztu!...

Eta berak:

–Motel, motel! Zer esaten didak? Makiña bat operazio egin dizkiat nere denboran; bañan oraindik etzidak iñork esan moztutzeko konturik, prueba egin bear dala baik.

Eta nik erantzun nion:

–Prueba egiten zertan asi bear degu, dana puskatua dago ta?

Alaxen, ezkerreko oña moztu eta esku-biko zankoa amairu punturekin josi zidan.

Operatzeko nola kloroformoa eman zidaten, oiera eraman niñutenean ni ez nintzan konturatzen nun nengoan; ezta operatu bazidaten ere. Neri iruditzen zitzaidan oña moztu egin zidatela. Goata eta trapu asko baineukan eta ez bainion antzematen. Eskua

pasatzen nuan eta nere modu esaten nuan: «Neri oña moztu egin zidatek!», eta negar egiten nuan.

Don Inazio Urbina mediku jaun au oso gizon jatorra eta atsegiña zan. Noiznai etortzen zitzaidan bixita egitera, oiean nengoan tokira. Antxen egoten zan oiaren gañean exerita, kontu kontari, zerbait falta al nuan esanaz.

Nik eskatu nion pañuelo bat ea mesedez ekarriko zidan, eta bi ekarri zizkidan berri-berriak; eta, «eskerrik asko» esanaz, nik galdetu nion:

–Nik oña moztua al daukat?

Eta erantzun zidan:

–*¡Qué va!* Nola izango dek ba oña moztua? Beatzak eta danak or dauzkak!

Ala, ixilik gelditzen nintzan; bañan berriz ere ez nengoan lasai, eta etortzen zanean galdetu egiten nion, nik jakin nai nuala oña nola neukan, eta esateko mesedez egia. Orduan esan zidan:

–Begira: batzuek ez ditek nai izaten esatea; bañan ik desio ori baldin badek, esango diat: oña moztuta daukak. Neronek moztu nikan, eta oso ederki jarrita daukak, eta ori azkar sendatuko dek. Egon adi lasai!

Bañan arek ura esan zuanean, ni berriz ere negarrez.

Egun batez ospital ontara etorri zan gizon agintari jaun bat, eta galdetu zizkidan izen-apelliduak eta nungoa nintzan. Esan nizkion, eta ala joan zan.

Ospital ontan egun batzuk igarota, ni nengoan salako monjak esan zigun eritu danoi, agindua zala oietik jeikitzeke gauza giñan guztiak Pamplona-ra joan bear genduala, frentetik eritu asko zetorrela eta aientzat lekua izan zedin.

Ni operatzeko maiean jarri niñutenean, guraizearekin soñean neuzkan arropa danak goitik asi ta beeraño moztu egin zizkidaten, eta ez nuan geiago nere arroparik ikusi. Galdetu nien bein baño geiagotan ere, bañan ez omen zituzten arkitzen.

Monjak esan zidanean Pamplona-ra joan bear genduala, nik erantzun nion nere amak mundura ekarrita bezela nengoala, eta zerbait bearke nuala jazteko.

Orduan erantzun zidan, «Gizarajoa!» esanez, gure sala artan bazala falanjista bat gaubean illa, eta ari kenduko ziola buzoa eta arekin jantziko nintzala.

Antxen egin genduan, erderazko esaera

batek dion bezela, «*desnudar a un santo para vestir a otro*»; eta buzo ori jantzita aldatu nintzan, beste eritu askorekin, guretzat jarritako tren berezi batean, Bitori-tik Pamploña-ra, *Hospital Militar*-era.

Len esan dedan agintari jaun arek, ez dakit nola, bañan abixu txarra bialdu zuan gure etxera, esanaz alegia bi oñak gerran moztuak nituala eta oso gaizki nengoala; eta, bizirik ikusi nai baniñuten, azkar joateko.

Abixu ori artu eta urrengo egunean, goizeko trenean sartu eta joan ziran Bitori-ra nere bi anai, Rikardo eta Polikarpo. Iritxi omen ziran noizbait erri ontara, eta joan omen ziran ni nengoan ospital artara.

Ni nengoan salak *Nuestra Señora del Pilar* zuan izena. Sartu eta «lenengo oia», orrela nere galdera egin omen zioten sala artako monjari, eta erantzun omen zien bere eskuko beatza luzaturik:

—Ori da sala ontako lenengo oia, eta ortxen daukazute zuek bear dezuten soldadu eritua.

Eta nere anaiak erantzun omen zioten:

—Ori ez da gure anaia.

Eta monjak:

—Ez dakit ba nik nor izango dan zuen anaia. Sala ontan lenengo oiean baldin bazan, onek izan bear du; edo, bestela, ainbeste iltzen da emen egunaren buruan eta illa izango da.

Ospital guztia jira omen zuten beetik asi ta goraño; eta, arkitu ez niñutenean, berriz ere ain triste nere bi anaiak etxera. Ni, berriz, bezperan Pamplona-ra etorria nintzan. Bitori-ko ospital artan nola eretzeko ainbat lan zegoan orrenbeste jende eriturekin, monja ura etzan konturatu egiten Pamplona-ra bialdu bagiñuzten ere.

Nik, Pamplona-ra iritxi bezin laister, egin nituan bi letra etxera, nere anaiari esanez nun eta nola arkitzen nintzan. Berealaxen etorri ziran nere bi anaiak, eta oiaren ondoan negar egiñez esaten zidaten:

—Bizi al aiz, motel?

—Bai, mutillak; ikusi dizkiat komeri eder-rak, bañan oraindik ere bizi nauk.

Eta Rikardok esaten zidan:

—Bai, motel; Bitoria-n izan giñuan lengo egun batean, eta ospitaleko monjak esan ziguken seguru asko illa izango intzala, eta pena ederrarekin joan giñuan berriz etxera.

Eta berriro lepotik eldu eta negar egiñez
esaten zidan:

–Pozaren pozez txoratzen gaudek, motel, i bizirik ikustearekin. Gure Jaungoikoak
nai dezala lenbailen sendatu eta etxera joa-
tea.

Eta alaxen joan ziran berak etxera.

XXV

Pamplona-n pasa nituan lau bat illabete, nere zauriak sendatu ziran arte. Emen suerte ona izan nuan. Baziran oiak *madrina de guerra* izeneko emakumeak beren kontura artzen zituztenak; eta ni nengoan oiaren madrina Naparroa-ko Diputazioko Presidente jaunaren emaztea zan. Orregatik, an egon nintzan bitartean, neri etzitzaidan ezertxo ere palta izan, nola jateko, edateko eta jazteko.

Andre onek bazeuzkan ospital ontan, ni nengoan salan bertan, bi alaba beren borondatez gaxo-zai serbitzen zebiltzanak; eta, ni ospital artara etorri ta urrengo goizean, ni nengoan oia antolatzera etorri ziranean, bi neskatxa abek esan zidaten mesedez jeikitzeke pixka bat, oia egin arte.

Nik, ordea, Bitori-tik ekarri nuan buzoa oierakoan kendu egiten nuan, eta berriro ere nere amak mundura ekarrita bezela arkitzen nintzan, eta lotsaturik esaten nien ea ezin al zuten antolatu oi ura neroni bertan nengoa-la, eta esaten zidaten:

–Zer ba? Min aundia al daukazu?

Eta nik orduan esan egin bear nola arkitzen nintzan, eta esan zidaten oso kupiturik:

–Gaur etxera joaten geranean, esango diogu gure amari zu nola arkitzen zeran.

Urrengo goizean, oia antolatzera etorri ziranean, esan zidaten beren amak esan zio-tela galdetzeko neri zer bear nuan. Ni, berriz, lotsatu egiten nintzan ezer eskatzea; eta, aditu zutenean ezer ez neukala soñean jazteko, an ekarri zizkidaten sekulako gauzak: bi galtza pare, bi alkandora, barrengo arropa zuriak, galtzerdiak... Zapatarik etzidaten ekarri, jantzi ezin nualako; bañan bai bastoi eder bat, tinta, pluma, paperak eta sobreak, kartak eskribitzeko.

Gero, neskatxa abei esan zien beren amak, koltxoi baten gañean baño obeto egongo nintzala biren gañean, eta jartzeko bigarren koltxoia neri. Ala jarri zidaten, eta

markes bat bezin ongi zaitzen niñuten ospital ontan.

Andre ura, berriz, jaiero etortzen zitzaidan bixita egitera, eta geienean bazkal orduan etortzen zan. Beti ekartzen zizkidan dozen erdi bat pastela kremazkoak, botella bat edari on eta puro eder bat; eta, nik bazkaltzen nuan arte, antxen egoten zan oiaren ondoan exerita.

Neri gerrako kontuak galdetzen zizkidan; nik esaten nizkion, eta biok antxen, ama-semeak izan bagiña bezela, kontu kontuari jarduten giñan.

Ospital ontan poliki jaten genduan; bañan andre oni janari aul xamarra iruditzen zitzaion neretzat, eta bertako buru egiten zuan mediku jaunari otsegin eta esan zion nik odol asko ixuri nuala nere zaurietatik, eta argal nengoala, eta emateko neri egun batean aragia eta bestean ollaskoa, indartu nendin.

Orrelaxen pasatu nituan egun ederra pranko, andre on ura eta bere alabak zirala meriyo. Diru askorik ez nuan izaten, bañan bai jan da jantzi bapo.

Gure libertsioa pelota-partiduak ikustea izaten zan. Egunero, bazkal orduan, etortzen

zan teniente medikua sala guztietara, zinera-ko eta frontoirako sarrerakin. Neri beti zinea baño geiago gustatu izan zait pelota, eta frontoirako sarrera artzen nuan.

Joaten nintzan *Euskal-Jai* izeneko frontoira, eta antxen ikusten nituan iru partidu, eta arratsalde ederra pasa eta berriz ere ospitalera illunabarrean.

Garaiz xamar afaltzen genduan, eta gero kartetan edo jokuan jarduten giñan, beste batzuetan radioa entzuten, eta gero lotara.

XXVI

Pamplona-ra etorri eta andik denbora puska batera, egun batez pozez txoraturik zebiltzala ikusten giñun ospitaleko medikuak, patrikanteak, monjak eta gañerako danak. Nik galdetu nion salako monjari:

—¿Qué pasa, Hermana? Veo que están todos muy contentos.

—¿No te has enterado aún, soldadito? Pues estamos de enhorabuena. Las tropas nacionales han tomado ya Bilbao.

Lendik ere bagendakigun, radioak esanaz, Bilbao inguruan zebiltzala gure soldaduak. Bañan nere barrenak eman zidan buelta ederra, ori entzun nuanean.

Radioak eta periodikoak esaten zuten prisionero asko egin zutela Bilbao-n sartu ziranean; eta pentsatzen nuan gure Kaximi-

ro antxen arrapatuko zutela, eta bearbada il ere egingo zutela, eta beti gauza orrekin pentsatzen egoten nintzan.

Eta egun batez, gutxiena pentsatzen nuan garaiean, nere oiaren gañean exerita zerbait irakurtzen nengoala, an ikusten det atean gizaseme bat sartzen dala. Jartzen naiz berari begira, eta zein izango eta Kaximiro!...

Berak ere bereala ezagutu niñun, eta etorri eta eldu zidan lepotik. Asi giñan biok negarrez, eta alkarri zer esan asmatu ezin genduala egon giñan pixka batean, arpegiak pareta baño zuriago eginda pozaren pozez.

Gero noizbait asi giñan izketan, eta galdetu zidan:

–Zer erida klase dituk?

–Ara, motel, gerrak zer aurrerapen ditun: tiro batekin eskubiko zankoan zauri luze bat egin zidateken, eta beste tiroarekin berriz ezkerreko oña puskatu eta zintzilik utzi, eta orain moztuta zeukat.

Berriro galdetu zidan:

–Nun eritu iñuten?

Eta nik erantzun nion:

–Yurre izena duan erri batean.

–Yurre-n? Zein egunetan?

–Maiatzaren 24-ean, eguerdiko ordubata inguruan.

Eta gizarajoak, negar samiña egiñez, bizkarretik eldu eta erantzun zidan:

–Orduan, ire oin oiek jo zituzten balak, neronek tireak izango dituk!

–Erorrek tireak? Zer ba?

–Bai; neronek tireak! Atake artan ni ere an niñuan!

Eta, lepotik elduta, bere begietako mal-ko samiñakin nere arpegia bustitzen zuan.

Nik esaten nion:

–Zer egingo diagu ba, motel? Jaungoikoak ala nai eta onek olaxen bearko ziken. Etzak pentsa gauza onengatik nik iregana gorrotorik daukatenik. Badakik gu beti alkar maiteak izan gerala, eta gaur ez len baño gutxiago.

Bañan arek berriz ere esaten zuan:

–Bai; bañan neronek tireak izango dituk!

Eta nik:

–Etzak negarrik egin, motel! Nik etzeukat iretzako eta iñorentzako inkurriorik! Ba-

zekiagu gorrotoagatik ez gerala ibili alkarren kontra!

Arek, ordea, beti gauza bera esaten zuan:

–Neronek tireak izango dituk!

Eta nik esaten nion:

–Zer egitea nai dek ba? Au ola etorri dek! Au ola etorri dek eta ola artu bear!

Ola jardun giñan denbora-puska batean. Gero esan nion:

–Poz aundia artzen diat i nere aurrean ikusita. Illa izango aizela ere pentsatu baitiat bein baño geiagotan, eta ez ukek pentsatuko nere biotzak zer lasaitasun daukan i bizirik emen ikustearekin. Mendi alde oietan gerran ibili geranean ere, burruka-aldia bukatzen zanean, makiña bat gudari il da lurrean etzanda zeudenai eldu eta buelta eman izan diot, i aizela irudituta.

Eta esan zidan:

–Bai; neronek ere ori bera egin izan diat makiña bat aldiz, zuetako bat ote zan beldurrarekin.

Gero galdetu nion:

–Eta i, nun barrena ibili aiz gerra-denbora ortan?

–Neri, naparrak Donosti artu zutenean, nere lagun batzuek esan zidateken euskotarrekin joan bear genduala Bilbao aldera, eta alaxen joan giñun. Geroztik or ibili gaituk Bizkai alde ortan. Burruka-aldi gogorak jo dizkigu; bañan beti gu atzera, alik eta Bilbao galdu genduan arte. Eta, beste asko bezelaxen, ni ere antxen prisionero egin nitxioteken; eta andik, prisionero-talde aundi bat artu eta danok Zaragoza-ko *campo de concentración* batera eramán giñuzteken. Ni ara joanda, bereala pentsatu niken: «Nere lantegiko nagusiari, Don Antonio Mendizabal-i, eskribitu bear zioat karta bat, esanez nola preso arkitzen naizen Zaragoza-n, eta ea berak zerbait egingo luken neregatik». Egin nitxioken karta ori, eta berealaxen bere kotxearekin joan uan Zaragoza-ra, eta ekarri nitxioken etxera, Donostira. Eta jakin dedanean i erituta Pamplona-ko ospitalean agola, berealaxen etorri nauk i bixitatzera. Eta zer moduz ago orain? Miñik bai al daukak?

–Orain ez. Operatu berrian bai, izan nizkian oñaze galantak; bañan orain etzeukat beintzat miñik. Oña falta detala, orixe.

–Bai; ori ni naizela meriyo moztua izango dek ik.

Eta berriz ere negar egiten zuan, eta nik esaten nion gauza ori burutik kentzearren:

–Zer egingo diagu ba, motel? Bizi gaituk beintzat oraindik, eta makiña bat badi-tuk betiko beren oñak oztuta gelditu diranak mendi alde oietan. Gu ere keja gaituk, bañan aien etxeetan ere zerbait esango ditek. Makiña bat guraso egongo dituk baztarretan negarrez, «Ortarako azi al ditugu gure au-rrak, beren sasoirik ederrenean iltzeko?» esanaz. Bañan ondo pentsatzen jartzen ba-gera, konformatu bearra zeukagu, gerrak olakoxe naigabeak eta ezbearrak ekartzen baitizkik familietara. Jaungoikoak ez dezala ni bizi naizen arte geiago gerrarik sortu, eta gero ere ez nere partetik!

Orrelaxen, itzaldi luze bat elkarrekin egin ondoren, agurtu zan bere begiak pa-ñueluarekin legortuaz, eta etorri zan Pam-plona-tik etxera, Donosti-ra.

XXVII

Gero etorri zan agindua ospital ontako eritu-mordo bat Tudela-ko ospitalera eram bear zala, eta alaxen autobus batzuetan sartu eta eraman giñuzten.

Erri onen inguruan masti aundiak dira, eta, joan giñanean, orduan ari ziran emakume-talde aundi bat gizonezko batzuekin matsa bildu eta bildu. Gure autobus danak gelditu erazi egin zituzten, eta an giñan eritu guztiai naiko matsa eman ziguten. Eta alaxen, matsa janez, jarraitu genduan, Tudela-ko errira iritxi arte.

Sartu giñan erri ontako ospitalera, medikuak eta monjak egin ziguten ongi-etorria, begiratu ziguten danoi zaurietara, eta an ibili giñan ogei bat egunean.

Askotan gaua izaten zan tristea, gure

kontrarioen aideplanoak etortzen baitziran. Erri onek bazeukan bere azpian tunel aundi bat, eta, sirena jotzen zutenean, ibiltzeko gauza giñanak emen sartzen giñan; eta ibiltzeko gauza etziranai, oiean zeuden tokian lau edo bost koltxoi botatzen zizkioten gañera, bonba erortzen bazan min gutxiago egitearren. Aideplanoak aldegiten zutenean, berriz ere danok ospitalera. Orrelaxen ibiltzen giñan.

Erri ontako baserritar jendea etzan beti naiko loa eginda bizi. Goizean laurak baño lenago erteten ziran etxetik, gizonezko eta emakumezko, beren mando eta karro zarrak artuta.

Erriari ematen zioten utsaldi ederra, jende asko ateratzen baitzan, bakoitza bere to-kira lanera.

Gero, illunabarrean, prozesioa ematen zuan. Mando-errenkada izugarriak etortzen ziran, bata bestearen atzetik, batzuek matsa, besteak patata, tipula, tomatea edo piperra zekartela. Piper-morroakin zetoztenak ematen zuten ederki, danak illeran gorri-gorri.

Ni gustora egoten nintzan aiei begira. Etzuten ekartzen jostatzeko gogo aundirik; gizarajoak ederki nekatuta etortzen ziran.

Urrengo agindua etorri zan, berriro Pamplona-ra joan bear genduala. Sartu giñan trenean, eta Pamplona-ko estazioraño. Emendik, anbulantziko kotxeetan sartuta, berriz ere *Hospital Militar*-era. Neri berriz ere lenago egon nintzan salan eta oi artan bertan suertatu zitzaidan sartzea.

Eta ez nintzan asarre. Lenago ere an egon bainintzan ederki, eta berriz ere ondo zaitu niñuten lengo medikuak, monjak, bi neskatxak eta beren ama borondate onekoak.

Lenago bezelaxen berriro ere asi nintzan bizitzen, nere zauriak sendatu ziran arte.

Sendatu nintzanean, medikuen aurrera eramán niñuten. Abek nere zauriai begiratu zieten, eta esan zidaten ez nintzala geiago gerrarako gauza, eta orduan eman zidaten *alta*, –baña nik oña palta–.

Etxera abiatzerakoan, agurtu nituan nere mediku, monja, enfermero eta an gelditzen ziran nere lagun erituak, eta ni egondu nintzan oiaren *madrina* agurtzera bere etxera joan nintzan.

Antxen agurtu nuan, esker beroak emanenez, egin zizkidaten mesede on guztiakgatik, eta famili guztiari esku emanda atera

nintzan. Eman zizkidaten zigarro puro eder batzuk, eta eskupekoa ere bai; eta esan zidaten, berriz ere iñoiz Pamplona-ra joaten banintzan, ez gelditzeko beren etxera sartu gabe.

Nere eginkizun batzuk zirala-ta, joan bear izaten nuan tarteka, eta berriz ere antxen joaten nintzan famili biotz oneko ura bixitatzera. Nola ez nintzan ba joango?

XXVIII

Gure anai Kaximirok ni etxera etorria nintzala jakin zuanean, laister etorri zan bera ere Azken-Portu-ra, zer moduz etorri ote nintzan galdetzera.

Eta Juan Mariren familia eta danok, merienda pixka bat egiñez, kontua pranko esan genduan, gure gerrako ibillerak berrituaz.

Gero, Azken-Portu-n sagardoa nola saltzen baigenduan, igandeetan noiznai etortzen zan bere andregaiarekin, eta nik toriatu egiten nuan, esanaz:

–Zer? Ez al dezute ezkontzerik pentsatzen, edo beti orrela ibili bear al dezute?

–Bai; laister zerbait egin bear ko diagu, beti orrela ibili gabe. Padrinotza egingo al diguk?

–Bai, motel; egingo ez diat ba? Pozik gañera! Alkarrekin egun bat ederra pasa bear diagu, lengo penak aztutzeko.

Eta alaxen ezkondu ziran bere andregai Martina eta biak. Egun ederra pasatu genduan. Etzuten familirik izan. Gero, andik urte batzuetara, bere emazte Martina gaxotu eta il egin zan.

Andik urte pare batera, berriro ezkondu zan Astigarraga-ko emakume batekin; bañan andik beste urte pare batera bera ere gaxotu eta, pleurarekin oso gaizki zegoala, eraman zuten klinikara operatzera.

Operatu zuten, bañan medikuak, ain gaizki zegoala ikusirik, etxera eramatea obea izango zala esan zuten. Alaxen, etxera ekarri eta bereala il zan.

Arkaitza baño gogorragoko gizona egun batetik bestera joan zitzaigun, esate baterako.

Pena ederra artu nuan nik beintzat, eta bere emazteak eta gure senideak ere bainoski. An aritu giñan gorputzaren jiran danok negarrez errezatzen. Nik esaten nien beste senideai:

–Orrenbeste denboran an ibili zan gizarajoa frentean bala tartean, eta Jaungoikoak

dakian bezela; noizbait bizirik etorri etxera, eta oraintxen urte batzuk pakean pasa bear mundu ontan, eta usterik gutxienean ziplo! Ara zer geran gu! Zerbait bagerala uste, eta ezer izan ez!

Garagarrillaren 12-an, igandearekin tokatu zan bere gorputza kanposantura eramatea, eta egundoko jende-pilla zan. Urrengo egunean, San Antonio egunez, egin ziran bere eleizkizunak Donosti-ko San Inazio-ko eleizan, eta antxen ere bazan jendea ugari; ezagun asko baitzuan gure Kaximiro gizarajoak. Jaungoikoak berekin dezala.

XXIX

Ni etxera etorri eta andikan laister, etorri zitzaidan bere kotxearekin berriz ere gure lantegiko nagusia, Erdozia jauna, eta galdetu zidan:

–Lanera etortzeko moduan al aiz, edo nola aiz?

–Lanera? Naiago nuke ba lanerako moduan banengo. Borondatea badaukat, bañan abildaderik ez. Gerran oña moztuta etorria nago etxera.

–Oña moztu al ditek?

–Bai, jauna, bai; auxen da andik ekarri degun propina.

–Marka ederra dek! Bañan nik gauza bat esango diat: ik iñork baño obeto dakik zer lan egin bear dan *Gas*-ean. Enkargatua

gaxo zeukat, eta kuadrillan ere jende berria geiena. Enkargatua sendatu arte bere tokian jarriko aiz, eta ea jende orri erakusten dioken lana nola egin bear dan.

Alaxen, joan nintzan berriz ere *Gas*-era lanera. Illabete batzuk pasa nituan enkargatu; bañan gero, enkargatua sendatu eta lanean etorri zanean, ni berriz ere zerbait lanean asi nintzan.

Kuadrilla ontan bagiñan palak nork bereak giñunak; eta nik, soldadu joan nintzanean, etxera ekarri, garbi-garbi egin, olio eman eta jaso egin nuan. Enkargatua sendatuta etorri zanean, ni nere pala orrekin lanean asi nintzan, eta Kalisto enkargatua begira-begira jarri eta auxen esan zidan:

—Sebastian, lenago ere pala orrek lanean ederki zekian.

Bañan palaketako lana nola baitzan astuna ta gogorra, moztutako oñak etzidan bear bezela laguntzen, eta pentsatu nuan ez neukala nik lantegi artan jarraitzerik. Ala, Donosti-ko Aiuntamentura joan nintzan, eta bertako agintariai galdetu nien:

—Neretzako lan-toki polit bat bai al daukate?

—Lantegi polita? Bai, gizona; bat baño

geiago ere badauzkagu. Jende guztia gerrara joan zaigu, eta lanerako iñor ez. Etorri zaituz datorren astelenean, eta enkargatuak erakutsiko dizu lantegia.

Ala joan nintzan, esan bezela, urrengo astelenean, goizeko zortziretarako, eta enkargatuak eramanez Amara-ko *Parque de Niños* izeneko tokira, eta esan zidan:

–Auxen da zure lantegia. Emen ikusten dituzu nola dauden loreak eta beste landare-klase asko aldatuak, eta abei begiratu bear diezu, umeak ondatu ez ditzaten.

Eta bastoi bat eskuan nuala, antxen ibiltzen nintzan jira ta buelta. Aur asko joaten zan, batzuk beren gurasoekin eta beste asko berriz neskameekin. Bein baño geiagotan esan nion nik nere buruari:

–Ementxen zeukat nik aukera ederra andregai bat egiteko.

Neskatxa euskaldun asko joaten zan eta geienekin itzegiten nuan, bañan ez nuan andregairik egin; ez baigiñan asmo berdiñekoak neskatxa abek eta ni: berai kale aldeko bizi-modua gustatzen zitzaien, eta neri berriz baserri edo mendi aldekoa.

Etzan lantegi txarra, bañan ni illuntzerako nekatu egiten nintzan; egun guztian oña-

ren gañean ibili bear baitzan, eta nik zimen-
du txarrak izan.

Egun batez, nere agintariai esan nien ea
beste lantegi bat bai al zeukaten neretzat,
neke gutxiago zuana. Erantzun zidaten
baietz, eta ala eman zidaten.

Geroztik beti Donosti-ko Aiuntamentua-
ren serbitzari izan naiz, orain aspaldi ontan
nere eginkizuna Oriamendi-ko uraren depo-
situa zaitzea dala.

Lantegi au eskeñi zidatenean, Donosti-
-ko kale batean porteri bat ere banuan nere
izenean, nai nuanean ezkondu eta bertan bi-
zitzeko; eta orduan, orain emazte dedan oni,
esan nion:

–Pilar, laister ezkondu egin bear degu,
eta nik badauzkat bi etxe nere izenean, bat
kalean eta bestea mendi aldean. Orain zuk
esango dezu nun bizi nai dezun.

Eta, bera ere nola baitan baserrian jaioa,
auxen erantzun zidan:

–Nik ez det kalean nai; nik naiago det
mendi aldean bizi.

Ala, ezkondu ezkerostik mendi aldean
bizi gera, seme bat eta bi alabakin. Gure
etxe au oso leku paketsu eta alaiean egiña
dago, Aiete ballarako Oriamendi inguruan.

Emendik ikusten dira ederki Donosti eta bere inguruko ballara geienak, bai Gipuzkoako mendi geienak eta Naparroakoak ere. Ixiltasun atsegiñean bizi gera, fabriketako eta gañerako soñurik entzun gabe. Pakea nai duana betor mendira. Emen dago pakea, zorriona eta alaitasuna.

Bañan nik, nere pake-toki ontatik ere, askotan oroitzen naiz nere gerra-denboraz. Eta egun batez, ala gogoak emanda, bertso auek jarri nituan:

Milla beatzireun gañera ogei ta
amaseigarren urtian,
gerra triste bat sortu zitzaigun
Españiyako partian;
esan biarrik ez dago zala
soldaduentzat kaltian,
ni ere kintak arrapatuta
or ibili naiz tartian,
amaika amaren seme sartu da
urte auetan lurpian.

Bizkaian Yurre izena duan
erri batian sartuta,
bizirik juxtu atera nintzan
sari ederra artuta;




maiatzak ogei ta lau zituan
egunian erituta,
kamilleruak jaso niñuten
geiena odol ustuta,
ospitalera ekarri naute
tiroak anka moztuta.

An bi anaiak alkarren kontra
giñala guk ez genekin,
inkurriorik gabe alkarri
tiroka fusillarekin;
urrena berriz ospitalian
bildu giñan alkarrekin,
negar egiñaz berak esana
ordun pena ederrarekin:
«Ire oin oiek jotako balak
NERONEK TIRAKO NIZKIN!».

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALITZAINDIA
BILBO

1994 EKA 2 4

87948



Sebastian Salaberriak *Agora* elkartearen *Gipuzkoa* saria irabazi zuan 1964 urtean, gaur bigarren aldiz argitaratzen degun *Neronek tirako nizkin* izeneko idazlan onekin.

Bere aur eta gazte-denboraren berri eman ondoren, gerrateko ibillerak kontatzen dizkigu. Guda sortu zanean, bera, guztiz pakezalea izanik, ez da etxetik inora joaten. Baiña kintak arrapatu eta fusilla artu bearra du. Bizkaira eramaten dute. Antxe, beste aldetik ordea, anai bat dauka: Kasimiro. Eta egun batean biak bildur zutena gertatzen da: alkarri tiroka ekin bearra.

Orixe besterik ez da, izan ere, gerra zibilla: anai arteko burruka.



1005880

ISBN 84 85846-86-9



9 788485 846863